

Gradu Amaierako Lana

**ARKEOLOGIA ETA GAUR EGUNGO
GIZARTEA: GATAZKA ETA MEMORIAREN
MATERIALTASUNA IRAGAN HURBILEAN.
AZKOITIAKO KASUA**

Historiako Gradua

2016-2017 Ikasturtea

Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Tutorea: Belén Bengoetxea Rementeria

Saila: Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

AURKIBIDEA:

Ikerketaren laburpena:.....	3
0. Sarrera:	4
1.Iragan Hurbileko Arkeologia:	7
2. Eta Azkoitian zer? Azkoitiako kasua	11
3. Ondorio eta hausnarketak.....	34
Bibliografia:	37
Eranskinak:.....	40

Ikerketaren laburpena:

Ikerketa lan helburu nagusia, Azkoitian isilarazitako XIX. mende amaiera eta XX. mendeko historia argitara ateratzea da. Hori lortu ahal izateko, gaur egun oso ohikoa ez den bidea erabili dugu, hain zuzen, metodo-arkeologikoa. Gizarteak bere historiaren berri izan dezan, lan hau azkoitiarren eskura jartzea da azken helburua.

Lehenik eta behin, marko teorikoa azaldu da, Gatazka Arkeologiak zertan datzan eta Paisaia eta Memoriak elkarren artean izan dezaketen lotura azalduz, irakurleak Azkoitiako egoera zuzena irakurtzen hasi aurretik perspektiba teoriko bat izan dezan, errazago ulertzeko. Bigarrenik, Azkoitiako bi lantegiren azterketa gauzatu da: lehena, Baliaras Jute Lantegia delakoa, zeinetan, artxibo dokumentuez, testigantzez zein zuzeneko argazkiez baliatu garen; bigarrena, Epelde y Larrañaga Jute Lantegia delakoa, zeinetan, batez ere, testigantza zein dokumentu idatziez baliatu garen, nahiz eta argazkiez ere balitu. Azterketa hauek burutu ondoren, lanaren hurrengo atalean, hain zuzen, “Errepresioaren orbanak” delakoan, Gerra Zibila eta ondorengo diktaduran funtzionalitatea izan zuten hiru eraikin aztertu ditugu. Lehena, Juin-Torrea delakoa izan da, eta bertan, zuzeneko argazkiez eta testigantzez baliatu gara batik bat, Azkoitiako Udal-Artxiboan eraikinarekin lotutako gerra garaiko dokumentu bat baino ez baitago. Bigarren eraikina, Gurea Pilotalekua izan da, eta bertan, testigantza, argazki eta Azkoitiako Udal-Artxibo zein Etxaniz-Iturbe familiaren dokumentuen bidez, familia honek gerra garaian pairatutako nondik-norakoak osatu ahal izan ditugu. Azkenik, Floreagako Ikastetxea ikertu dugu, zeina ospitale-militarra izan zen 1937.urtean; eraikinak gaur egun ikastetxe baten izaera duenez, batik bat haren historia osatzeko Azkoitiako Udal-Artxibora jo behar izan dugu.

Ikerketa burutzeko, erabilitako metodologiak eragindako arazoak plazaratu ditugu eta azkenik, Azkoitiako herriak bere Memoria Kolektiboa osatu ahal izateko, herritarren historia lehen ikuspegitik ezagutzea zeinen garrantzitsua den azpimarratu nahi izan dugu; horretarako tresna oso baliagarria eraikinak ditugula berretsiz.

0. Sarrera:

Historiako Gradura sartzean, betidanik Arkeologiarekiko izan dudana grinez sartu nintzen. Lurrarekiko lotura zuen zerbaiten nire lehen deskubrimendua, mineralak izan ziren, zehazki, hain distiratsuak diren piritenak. Urretxuko mineralen eta fosilen azokara hurbiltzean, hango harri bitxi eta karakol zein baleen hortzen fosilekin txundituta geratu nintzen, eta ordudanik hasi nintzen era guztietako harri zein fosilak eskuratu eta etxeke edozein txokotan ezartzen. Laster konturatu nintzen ordea, erostea baino haiek neuk aurkitzea dibertigarriagoa izango zela, eta halaxe, udaro hurbiltzen ginen hondartzetan harri, fosil zein txirlen bilketak egiten hasi nintzen; bai eta herriko ibaira jaitsi eta zerbait berezia zuten harriak biltzen ere. Denborak aurrera egin ahala, herrialde ezberdinetara bidaiatzen nuen bakoitzean, harri ezberdin bat ekartzeko joera hartu nuen. Bitxikeria lagun, harri, txirla ... haiek nondik ote zetozen galdetzeari ekin nion neure buruari, istorio ezberdinak sortzeraino. Handik, aiton-amonei kontu zaharrak entzuteko grina piztu zitzaidan. Izugarria izaten zen zer-nolako miresmena sentitzen nuen une hartan, eta izugarria, kontakizun hark amaierarik ez izateko nituen gogoak. Mundu honetan guztia bezala ordea, haiek ere bukatu egiten ziren ... baina nik ez nuen, batzuetan istorio eta besteetan historia, haiek bukatzeko gogorik.

Behinola, 14 urte nituela, orduan nire tutorea zenak ea handitan zer izan nahi nuen galdetu zidan. Baina hara non, erantzunik gabe geratu nintzen eta orduan, nire aurpegiko larritasuna ikusirik, galdera apur bat malgutzea otu zitzaion “Zer gustatzen zaizu egitea Ione?” eta nik honelaxe erantzun nion “Niri mendien gailurretan fosilizatuta egoten diren fosilak hartzea gustatzen zait, ibaietan edo hondartzetako arroketan murgildu eta kolore eta osagai ezberdinak dituzten harri zein txirlak hartzea ... bai eta helduen historia eta kontakizunak entzutea ere”. Eta hara non, bere erantzuna “Ione, arkeologo bikaina izango zara!”; lehen larritasun hartatik tentel itxurara igaro zitzaidan aurpegia. “Zer da bada arkeologia, Ana?” galdetu nion, eta hark, bere intentzio onenarekin, gizartean oro har hain zabaldua dagoen erantzuna eman zidan “Lur azpian dauden material bitxiak atera eta haiek museoen bidez gizarteratzeaz arduratzen diren pertsonak dira. Ezagutzen al duzu Egipto? Bertan izugarritzko piramide handiak aurkitu dituzte, eta haien barnean, izugarritzko bitxi pila topatu izan dituzte, bai eta hilobiratutako pertsonak ere, hain zuzen, garai hartako agintariak ziren faraoiak”. Erantzunak zur eta lur utzi ninduen, nire harri, mineral eta historien kontakizunetik, kontakizun arrotz eta aldi berean, ilusionista batera bideratu ninduen. Ordudanik,

Antzinako gizarteen bizi moldea eta kontakizunetik miresmen handia izatea lortu zuen, baina oraindik ere, aiton-amonek gurasoei transmititu zizkieten Iragan Hurbileko historiak entzuteak, Gerra Zibilekoak, alegia, miresmen eta grin handiagoa suposatzen zidan. Gertuagokoak agian? Edo egunerokotasuneko ekintzak zein gertakizunak ulertzen laguntzen zidatenak?

Ez da erraza galdera hauei erantzun zehatza ematea, baina lan honen abiapuntua izan delako zalantzarik ez dut. Arbasoen iraganak, gaurkotasuna ulertzen lagundu didanaren ustea dut. Hortik abiatuz, gaurkoan aurkezten dudan lanak Azkoitiako herriari bere Iragan Hurbila ulertzen laguntzea du helburu. Horretarako, estimu handia nion irakasle hark ireki zidan bideetako bat erabiliko dut, Arkeologia, baina berak azaldutako kontzeptuari bira aldakorra emanez. Hain zuzen, Arkeologia, objektu bilketa eta erakusketa ez dela adierazten saiatuko naiz, baizik eta, arkeologoak lur azpitik zein gure kasuan gisan, lur gainetik aztertutako kultura-materialaren bidez, haiek interpretatuz, historia sortu dezakeela eta hura gizarteratu beharra duela berretsi.

Horretarako, Azkoitiako herria aztertuko dut, herria osatzen duten eraikin ezberdinez baliatuz. Eraikin horiek, sortu zirenetik denboran zehar eraldaketa andana izan dituzte, eta beraien bizitza eraldaketez betetako denbora prozesu baten gisan ulertu behar dugu. Eraikin hauen informazio historikoa, ahalik eta modu laburrenean azaltzen ahaleginduko gara, batik bat, XIX. mendean eta XX. mendeko 40eko hamarkadara artean zentratuko garelarik. Denbora eremu hau hartzearen arrazoi nagusietako bat, azkoitiarren ehuneko handi batek bere Iragan Hurbileko historia ez duela ezagutzen izan da. Iragan Hurbileko oroimen galduaz hitz egin genezake, batik bat, 1936. urtetik hasi eta 1975era bitartean eratutako ahanzturaren munstroaz¹ edo. Ahanzturaren munstroari aurre egin eta orain gutxi arte, inkontzientean beldurra barneratuta eduki duen giza taldeari, hura atera eta erreparatu ahal izateko eredu nahi bat litzateke jarraian datorrena.

Lehenik eta behin Memoria eta Ondarearen esanahia ematen saiatu gara, horretarako eduki horretako argitalpen ezberdinak baliogarriak izan zaizkigularik. Bi kontzeptu hauek gizartearekiko duten harremana azaltzea oso garrantzitsua dela iruditu zaigu,

¹ Ahanzturaren munstroa, lan honetarako sortutako kontzeptua litzateke. Hain zuzen, 1936ko uztailaren 18an espainiar estatu demokratikoaren aurka altxatu ziren militarrek 1939ko apirilaren 1ean garaipena lortu ostean eragindako errepresio fisiko eta psikologikoaren “aurka” edo “eraginpean” beldurragatik babesteko alde galtzaileak sortutako pasarte gogor eta ankerrenen ezabaketa gunetzat har genezake.

batik bat, gure lanaren irakurle edo entzuleak, zehaztu ditugun helburuak modu argiagorik batean uler ditzan. Ezinbestekoa baita Memoria Historikoa eta Ondare Arkeologiko, Industrial eta Paisaia Ondarea zer diren zehaztea, gure lana martxan jarri eta ulertu ahal izateko, beti ere, gizarteak hori ulertu eta etorkizun batean erabili zein zabaltzea baitugu abiapuntu.

Helburua lortu ahal izateko, aurrerago azaldu gisan, Azkoitiako eraikin historiko ezberdinen ikerketaz baliatuko gara: Baliaras edo San Francisco Jute Lantegia, Epelde y Larrañaga Jute Lantegia, Juin-Torrea, Gurea Pilotalekua eta Floreagako Ikastetxea. Lehenik eta behin Azkoitiako XIX. mendetik aurrerako egitura geografikoan eraikin hauen posizionamendua zehaztuko da; ondoren, eraikin bakoitzaren barne-deskribapena egingo da, orotariko argazkiekin eta azkenik, eraikin bakoitzak historiako denbora tarte horretan izan duen papera zehazteaz arduratuko gara. Informazio hori guztia bildu ahal izateko orotariko iturriak erabili ditugu: iturri dokumentalak (Azkoitiako Udal Artxibotik zein Etxaniz-Iturbe familiaren dokumentu pribatuetatik; aldizkariak), ahozko iturriak (zeintzuk ezinbestekoak izan diren laneko zenbait hutsune bete ahal izateko) bai eta iturri materialak ere, hala nola, San Francisco Jute Lantegian zein Juin-Torrean egindako analisiak. Horiez guztiez gainera, lanaren amaieran doakizuen bibliografiaz baliatu gara, lanari egituratze irmo bat ematearren.

Lanaren funtsezko helburua, Azkoitiako herriari bere Iragan Hurbilaren berri eman eta hainbeste denboran zehar zokoratuta egon den Historia gogora ekartzea da, kasu honetan, arkeologiak eskaintzen dizkigun tresna ezberdinez baliatuz, eta aldi horretako izaera ezberdineko eraikinak aztertuz.

Hori kontutan izanik, lanari hasiera eman baino lehen, lan gogotsu eta ezohiko honetan zeharka bada ere parte hartu duten jende multzoari eskerrak eman nahi nizkioke. Eskerrak, lehendabizi, Etxaniz-Iturbe familiari, haien dokumentu pribatuak behar izan dudana aldiro kontsultatzen uzteagatik; bai eta, familia horretako kide den eta adetasun osoz uneoro bere testigantza emateko prest izan dudana Paulo Etxaniz Iturberri ere. Eskerrak, Azkoitiako Udal-Artxibo zaindariari, Imanol Mujikari, artxiboko edozein dokumentu kontsultatzeko beharra izan dudanean, edo lan honentzat beharrezkoak ziren dokumentuak aurkitzerakoan, eskuzabal lagundu izanagatik. Eskerrak Juin-Torrea eta Baliaras Jute Lantegiaren ateak zabaldu dizkidatenei. Eskerrak Belén Bengoetxeari, lan honetako tutoreari, edozein zalantzen aurrean prestutasuna adierazteagatik.

1. Iragan Hurbileko Arkeologia:

Iragan Hurbileko Arkeologia izenpetu dugun atal honetan, zeina denboran hurbila den baina jada pasata dagoen arkeologia izango litzatekeenean, irakurleak gure lana interpretatzeko oinarri teorikoa izan dezan, gai ezberdinak jorratuko ditut: Gerra Zibila eta harekin lotuta, “Paisaia eta Gatazka Arkeologia” eta “Paisaia eta Memoria” gaiak; bai eta “Paisaia eta Memoria Industrialak” delakoak ere.

1.1.Gerra Zibila, Diktadura eta Memoria Historikoa

Gaur egun espainiar estatuan pil-pilean dugun gaietako bat dugu memoriarena, hain zuzen, Memoria Historikoarena. Gerra Zibila hasi (1936) eta diktadorea hil arteko epealdia (1975) benetan luzea izan zen, eta epe luze horretako bizipenak pertsona askok eta askok memorian dituzte. Baina diktaduraren ostean memoria hura ahazteko joera politikoa hartu zen, ahaztearekin minaren orbanak ezabatuko zirelakoan. Baina joera bestelakoa izan da, memoriak oroitzea baitakar eta, erreparazioa izan daiteke justizia egiteko bide.

2007an, 52/2007 abenduaren 26ko Legearen bitartez, Gerra Zibilean eta Diktadura Frankistan zehar biolentzia eta errepresioa jasan zuten giza taldeentzako eskubideen zabalpena adierazi zen, Memoria Historikoaren Lege bezala ezagutua. Gizakiaren eta haren familiaren aldeko memoriaren eskubidea berretsi zen (Escudero eta Martín, 2008: 76).

Baina, frankismoak, lur azpian ez ezik, lur gainean ere bere aztarnak utzi zituen. Horra hor “Valle de los Caídos” mausoleoaren kasua, zeina Francok eraikitzea agindu zuen, haren menpe zituen preso politikoen bidez, eta frankismoaren monumentu eta sinbolo gisa bultzatu.

Gutxitan ohartzen gara gure inguruan historia besterik ez dugula, inguruko paisaiek historia bizi izan dute, paisaian bertan eraldaketak gertatu direlarik eta ondorioz horren inguruan zenbait pertsonen haien memoria eta identitatea eraiki ahal izan dituztelarik. Horren eredu da, gaur egun, diktaduraren orbanak memoriatik ezabatu ez daitezen zenbait ikerlek hartutako erabakia: “Aunque parezca una paradoja, necesitamos los monumentos de Franco para hacer democracia” (González Ruibal, 2009: 111).

Lehen urteetan, Arkeologia Forensea arduratu bazen ere Gerra Zibileko eta Diktadurako eremuak ikertzeaz, lurpeko hobietatik abiatuz, gaur egun ezinbestekoa

zaigu Gatazka Arkeologia, Gerra eta Diktaturako paisaiak ikerketa arkeologikoaren bidez lantzeko. Horren adibideetako bat dugu Madrileko Complutense Unibertsitateko campusa, faxista eta errepublikarren arteko bataila garrantzitsua gertatu zena, zeinetan Francok, hura musealizatzeko intentzioa erakutsi zuen. Azken urteetan, zenbait arkeologo, eraikin hauen historia berrinterpretatzen dabiltza (González Ruibal, 2008: 14).

Beraz, Gatazka Arkeologiak, Iragan Hurbileko eremua aztertzen du. Baina zer dugu Iragan Hurbila? Ikerketa-helburu iragana duen arkeologia da, baina era berean hurbil dagoen iragan bat, Gerra Zibila eta haren osteko Diktadura Frankista kasu. Iragan Hurbileko Arkeologia, hasiera batean, 70eko hamarkadako diktaturak ikertzeko asmoz sortu zen (Leiton, 2009: 68).

Arkeologoek, “Diktadura eta Errepresioaren Arkeologia” delakoa egiten dute. Biktimen familiarrekin egiten dute lan, testigantzak hartuz. Horrez gainera, arkeologoek, tortura tokietan aurkitutako kultura-materiala aztertzen dute, bai eta iturri dokumentalak erabili ere. Arkeologiaren azterketaren bidez, diskurtso ofiziala ezbaian jarri daiteke eta historiaren sorkuntzari bide eman (Ataliva, 2010: 38). Hala ere, Puebla de Lillo bezalako herrietan frankistek egindako errepresioarengatik, arkeologoek bertan eginiko indusketak ezbaian jartzen dituzte (Ayán, 2016: 261-262).

Eraikinaren lehengaiak, funtzioa, noiz eraikia eta zertarako erabilia izan zen determinatzen dute. Arkitektura da egitura hauetan gehien aztertzen dena, botere guneen egituraketa determinatzearen batik bat (Salerno, 2012: 83).

Hori oinarri harturik, Gatazka Arkeologiak, Iragan Hurbileko eremua aztertzeko, interdiziplinaritatea du tresna nagusia, hain zuzen, arkeologoen gain, beharrezkoa baita antropologoen, medikuen, epaileen zein psikologoen laguntza. Testiguen izugarritzko garrantzia dute, hauen bitartez, materialki ikertu genitzakeen zenbait inguruetako informazioa eman baitezakete (Acosta, 2006: 121).

Testiguak, paisaia baten inguruan haziak izan dira eta horren eraginez, beren testigantzak paisaia ezberdinetan kokatzen dituzte. Paisaia indibiduala ez ezik, kolektiboa ere bada, kanpo-eraginak gure memorian ere eragina baitu. Paisaia memoria indibidual zein kolektiboa den aldetik, gure identitate propioa sortzen laguntzeko tresna dugu (Quirós, 2013: 202).

Paisaia hori ez da estatikoa, paisaia jakin batek denbora luzean zehar jasan izan dituen eraldaketa sozial, ekonomiko, geografiko, politiko ... guztietariko informazioa ematen digu. Ikerketa burutzeko, argazkiak ezinbestekoak izan daitezke (Acosta et al., 2007: 144). Paisaia mantentzeko, ikuspuntu guztiak kontutan izango dituen Memoria Kolektiboa sortzea ezinbestekoa da. Memoria Kolektiboa osatzeko, Gerra Zibila eta Diktadura Frankistako paisaiak ikertu eta horretarako erabilitako kultura-materiala mantentzea ere ezinbestekoa da.

1.2. Paisaia Industrialia:

Memoria horren partaide da nolana ere, XX. mendeko paisaian hain ugaria zen industria. XX. mende hasieran, Azkoitiako kasuan esaterako, gaur aztergai ditugun Epelde y Larrañaga Jute Lantegia eta Baliaras Jute Lantegia jada martxan zeuden, eta herri horretako zenbaitek bertan lan egiten zuten; horrez gainera, Hurtado de Mendoza Txapel Lantegia ere aipatu beharra dugu, bertan herritar askok egiten baitzuten lan. Guztira Azkoitian 1922rako 6.459 biztanletik, 3.000k, industrian ziraute lanean (Castells, 1987, 155). Beraz, ez da harrizkoa, azkoitiarrek Paisaia Industrialaren inguruan eratu zutela haien memoria, mundu industrializatuan beste zenbaitek bezala. Bertan gerraren orbanak nabari genitzake, hain zuzen, produkzio-egitura aldaketan bai eta bertako zenbait langilek gerraren nondik-norakoak pairatu beharra izan baitzuten, aurrerago azalduko ditugun Pedro Andueza zein Jose Echániz Iturrioren kasuan bezalaxe.

Askotan “Monumentu Industrialia” edo eraikina bere horretan babestu den arren, haren inguruko produkzioa ere babestu beharra dugu, eta beraz Paisaia Industrialia litzatekeena ikertu. Industria Ondarea aztertzeke modu berriak, industriak sortzen zuen balio negatiboarekin lotzen zuen eta horren eraginez, Industria Ondare gehiena birrindu egin zen. Donostia-Irun eremuetan galdu zen Industria Ondare gehien (Herrerias eta Zaldua, 2011: 22-23).

Gaur egun ordea, Michael Rix-ek izena eman zion eta Ondare Industrialia babestea helburu duen Arkeologia Industrialaren zeregina, gizarte industrialia, metodologia arkeologikoa lagun, kultura materialaren bidez ezagutzea litzateke (Cerdà, 2008: 50).

“Monumentu Industrialia” aztertzerako orduan, arkeologoen eta historialarien arteko batasun bat falta izan da, baina gaur egun haien arteko elkarlana geroz eta handiagoa da.

Paisaia Industrialak, Paisaia Afektibotzat determinatu behar genuke, pertsona baten paisaiaren interpretazioan emozio eta sentimenduak gordetzen dituenari baitagokio, kasu honetan gizarte industrializatuarenak bai eta, Gerra Zibil eta Diktadurako errepresio garaiko paisaiak, min, tristura ... sortzen duten paisaien memoria berreskuratu beharra baitago. (Acosta, 2007: 153).

Paisaia Industrialak babesteaz gizartea arduratuko da, orduan Ondare Industrial bilakatuko delarik, ikuspuntu horretatik momentuko identitatearen arabera Ondare izendapena aldatu egin daiteke: “Es decir, se trata de una construcción social, y por tanto no puede ser estable sino que se va transformando con la propia sociedad que lo crea y lo mantiene” (Acosta, 2006: 120).


Ondare Industrialaren babesa, 1960ko hamarkadan Britainia Handian hasi zen. Hortik, Ondare Industrialaren zabalpenerako lehen museoak ireki zituzten, Ironbridge kasu. 1973an Ondare Industrialaren Kontserbaziorako Komite Internazionala ere sortu zen.

Estatu Espainiarrari dagokionez, 1982an Ondare Industrialaren babeserako lehen bilera egin zen Bilbon, baina 1985eko Ondare Historikoaren babeserako legean (LPHE) ez zen zehaztu Ondare Industrialaren inongo babesik. 2000. urtetik Industria Ondarearen Plan Nazionalarekin, Ondare Industrialaren babesa hasi zen, autonomia erkidegoekin elkarlanean. 2001ean autonomia erkidego bakoitzean zegoen Ondare Industrialak katalogatzeko plazoa ireki zuten. Elementu industrialak ez ezik, langile auzoak ... Ondare Industrialaren parte kontsideratuz (Pardo, 2016: 219).

2004an, Ondare Industrialaren Kontserbaziorako Komite Internazionala espainiar estatuan ezarri zen, eta 2007ko Bierzako Gutunaren bidez, Ondare Industrialaren kontserbazio eta erakusketarako lehen oinarriak ezarri ziren.

2. Eta Azkoitian zer? Azkoitiako kasua:

Teoria praktikara eraman ahal izateko, Azkoitiako herria hautatu dut, gaur egun, Gatazka eta Industria Ondarea, gutxi bada ere, bermatu egiten baita. Hala ere, isiltasunean mantendu den zerbait dela esan genezake Azkoitiako Ondare Garaikidearena, izan ere, ez baita bere osotasunean aztertua izan eta ondorioz, ezta babestua ere. Hori ekidin asmoz, eta Historia Garaikidea berrinterpretatu asmoz, arestian aipatutako Baliaras Jute Lantegia, Epelde y Larrañaga Jute Lantegia, Juin-Torrea, Gurea Pilotalekua eta Floreagako ospitale-militarra (gaur egun ikastetxea) hartu ditut aztergai. Eraikin ezberdin hauek ikertuz, Azkoitiako eremu produktiboa XIX. mende erdialdetik aurrera eta eremu produktibo horietan lan egin zuten zenbait pertsonen Gerra Zibilean zehar pairatutako egoera azaltzea izan da helburu. Eraikin hauek guztiak kokatu ahal izateko, Azkoitiako Udal Artxibotik lortu dudana 1925eko mapa batez baliatu naiz²:



1. Irudia. Azkoitia 1925. Hurtado de Mendoza Txapel Lantegia, Epelde y Larrañaga Jute Lantegia eta Juin Torrea, eraikita. Baliaras Lantegia eraikita (1885) baina irudikatu gabe. Gurea Pilotalekua (1931) eta Floreaga ospitale-militarra (1929) eraiki gabe. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal Artxiboa.

Errepara genezakeenez, Gurea Pilotalekua eta ondoren, Floreagako ospitale-militarra izango zena oraindik ere eraiki gabe zeuden. Horrez gainera, Baliaras Jute Lantegiaren irudikapenik ez zaigu agertzen mapan, agian jada funtzionatzea utzita zegoelako izan liteke. Epelde y Larrañaga Jute Lantegia funtzionamenduan zegoela errepara genezake eta Juin-Torrea ere bertan ageri zaigu, jada eraikita zegoela adieraziz.

³ Azkoitiako Udal-Artxiboa. Barne erreforma eta zabalkunderako plana. Urteak: 1924...1926. Signatura: 1020-01. Kodea: 251

2.1. Jutearen Industria Gipuzkoan:

Jutea, lurralde tropikaletan ekoizten den landare-zuntza da. Hura XIX. mende erdialdean Gipuzkoan sortu ziren fabriketan lantzen hasi ziren, bertatik haria ateratzeko. Nekazal herria izanagatik ere, Azkoitiak, industria aktibitate handia zuen garai hartarako, enpresa nagusienak, Esteban Alberdi y Cía, Mancisidor y Cía eta Epelde y Larrañaga jutezko trentzak eta abarketen oihalak lantzen zituztenak eta Hurtado de Mendoza Txapel Lantegia zirelarik (Castells, 1987: 152). Azkenik, Azkoitiako kale ezberdinetan lanean jarduten zuten abarketariak, abarketa konposatzen zuten, azkoitiarren artean “txortari” deituak zirenak. Azkoitiako herritarrek oso ohituta zeuden abarketak egitera eta beraz, lan hura betetzeko abantaila baino ez zuen suposatzen. Abarketen esportazioak estatu espainiarrean ez ezik Hego Amerikara ere bideratu ziren.

Gipuzkoan, Azkoitia izan zen herririk esanguratsuen jutea lantzen, izan ere, jute haria herrian bertan ekoizten hasi ziren, kanpotik zuzenean ekoiztuta ekarri beharrean³. Horren eraginez, haria, Pakistan eta Indiatik ekartzeaz arduratu ziren lantegiak.

Segidan, Azkoitian XIX. mendean zehar martxan jarri ziren bi Jute Lantegiren ikerketa egingo da, Baliaras eta Epelde y Larrañaga delakoena; horretarako, metodo arkeologikoen tresnak diren, artxibo dokumentalak, testigantzak eta zuzeneko ikuskapenez baliatu garelarik.

2.1.1. “Baliaras” edo “San Francisco” Jute Lantegiaren analisi arkeologikoa:

San Francisco⁴ Jute Lantegia, alpargaten goiko oihala egiteaz arduratzen zen. 1925a har genezake funtzionamendu uzte urte bezala. Lantegia Gipuzkoako Azkoitiako herrian kokatzen da, Elgoibarreko noranzkoa duen errepidearen ertzean, Mekoleta auzoan. Eraikinaren kanpoko egitura paregabe mantentzen da, jarraian azalduko ditugun aldaketa txiki batzuk baino ez dituelarik izan eraiki zutenetik. Barnealdeak berriz, eraldaketa anitz izan ditu, eta horiek azaldu ahal izateko eraikina bisitatu eta bertan egindako argazkiez baliatuko gara.

³Auñamendi Entziklopedia. *Yute*. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/144486>

⁴ Azkoitiako Udal-Artxiboko Industria kontribuzioetan, lehen zerga ordainketan, Baliaras izena ageri zaigu. Geroago ordea, hain zuzen, Epelde y Larrañaga Jute Lantegiak bereganatzen duenean hartzen du San Francisco izena. Hala ere, herritarren gehiengoak “Balixa” gisan ezagutzen dute fabrika, hura baita haren inguruari ere ematen zaion izena.

Baliaras Jute Lantegiaren egituratze-osoan azaldu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak 2016an ateratako ortofotoan⁵ gauzatutako mapaz baliatu gara. Horretarako, eraikina ez ezik, eraikin osoaren funtzioa betetzen duten inguruaren argazki osoa erabili dugu. Maparen deskribapena, irudiaren ezker aldetik hasi eta eskuin aldera egingo da:



2. Irudia. Baliaras-ko Lantegia eta haren inguruak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Eusko Jaurlaritza

Hala bada, irudiaren eskuineko aldean gezi berdez seinalatuta, lantegira ura eramaten zuen presa dugu (ikus 1.eranskina). Presan bertan desbiderazio bat egin dago, Katuingo ibaitik ura hartu eta fabrikaren ondoan biribil urdinez identifikatu genezakeen ur-depositura⁶ eramateko. Fabrika funtzionamenduan zegoen garaian, ura depositutik fabrikaren barnean aurkitzen den turbinara pasatzen zen (ikus 2.eranskina). Turbina honek, fabrikaren barnean aurkitzen ziren makinei ematen zien indarra.

1.1. Lantegiaren sorrera eta bilakaera:

1885ean Narciso eta Esteban Aranbarrik lantegia ireki zutenean, 4 ehundegi “fábrica de tejidos de algodón: 4 telares mecánicos movidos por agua”⁷ baino ez zituen eta eraikinaren lehen zonaldean kokatzen zen makineria hura guztia (ikus 3.eranskina). Aztertutako datuen arabera, Baliaras eremuan, jute lantegia ezarri aurretik, bestelako egitura mota batzuk existitu ziren. Fabrika izan baino lehen, Nagusia 103 deituriko zenbakian, 1870etik 1885era bitarteko Matrikula Industrialetan, “Alpargateria” izan zela adierazten da, Zabaleta izeneko jabearen izenean. Beraz, hasieratik, jada lantegiak bere oinarriak ezarrita zituen. Hala bada, 1885eko martxoko Matrikula Industrialen

⁵ Eusko Jaurlaritza. B5. http://b5m.gipuzkoa.eus/b5map/r1/es/mapa/localizar/M_017/capa/mapa

⁶ Ur-deposituak, bere garaian 3 metroko sakonera izan zuen. Gaur egun, ez du inolako erabilpenik eta fruitu-arbolak helduta daude.

⁷ Azkoitiako Udal-Artxiboa. Padrones y matrículas (industriales). Urteak: 1870-1910. Signatura: 1398. Kodea: 322

ordainketan, ordurako fabrika martxan zela erreparatu ahal izan dugu eta zehazki, abarketentzako oihala egiten espezializatuta zegoela.

1893an lehen aldaketa iritsiko zaio fabrikari, jada sei ehundegi baitzituen eta horren eraginez, bere produktibitatea ere hazi egin baitzen. 1896-1897 bitartean, harik eta gehiago hazi zen lantegiaren produktibitatea, hain zuzen, hamar ehundegi baitzituen ordurako. 1898-1899ko Matrikula Industrialetan ikertu ahal izan dugunez, urte horretatik aurrera, zergak ordaintzeari, Larrañaga y Cía-k ekingo dio; 12 langile eta 10 ehundegirekin. 1901erako Epelde, Larrañaga y Compañía batuta egongo badira ere (urte horretan batuko dira), oraindik Baliaras Lantegiak Larrañaga y Compañía-rena izaten jarraituko du. 1905era arte, Esteban Larrañagaren eskuetan egoten jarraituko du jute lantegiak, 12 langile eta 10 ehundegirekin.

I. Mundu Gerraren testuinguruan (1914-1918) lan handiagoa etorri zitzaizen Azkoitiako lantegiei ere, eta horren eraginez, Baliaras Lantegiak haren produktibitatea handitzeko asmoz 39 ehundegi zituen. Haren ekoizpena izugarri handitu zen, hain zuzen, Epelde y Larrañaga Cía-k, gaur egun Trenbidearen Zumardia auzoa deitzen den lantegiko laguntzaile izateari leporatu geniezaioke ehundegi gehiago izatearen arrazoiak. 1921erako 78 ehundegi izango baditu ere, 1923rako Baliaras Lantegiaren ekoizpena izugarri jaitsi zen, bat-batean, 48 ehundegi izatera pasa baitzen.

1.2. Analisi arkeologikoa:

1923rako, lantegiaren 2.Zonaldea eraikita zegoen, makina kantitatearen handitzeak jakinaraztera ematen digunez. 2.Zonaldea lantegiaren 1.Zonaldearen atzeko aldean eraiki zen eta bertan fabrikako egitura modernoagoak antzeman ditzakegu (ikus 13.orriko mapa). Espazioa bere horretan zabalagoa zen eta horrek jakinaraztera ematen gaitu bertan makina kantitate handiagoa kokatuko zela (ikus 4.eranskina). Espazio honetako lur-egiturari erreparatuz gero, makinek lau hanka dituztela errepara genezake, hankak eusteko markak lau baitira, eta hanka bakoitzak elkarrekiko metro bateko zabalera du:




3. Irudia. 2. Zonaldea. Makin-en oinarriak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Argazki hauetan, biribil gorriekin makinetako baten lau hankak markatuta errepara genitzake. Eskala bidez, metro bateko zabalera dutela argi ikusten da.



4. Irudia. 2. Zonaldea. Makin-en oinarriak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Makina hauek ordea, arestian aipatutako presak mugitutako turbinaren indarraz martxan jartzen ziren. Esan bezala, presatik depositura egiten zuen urak eta handik turbinara. Turbinak, jarraian azalduko dugun sistemaren bidez mugitzen zituen makina hauek guztiak. Behin turbinak uraren bidez indarra hartu eta elektrizitate-energia, 1. Zonaldean eta 2. Zonaldean kokatutako ardatz nagusietara bidaltzen zuen. Ardatz nagusiak, uhal bidez, makinari transmititzen zion energia hori guztia eta horren bidez, makina martxan jarri:



5. Irudia. Hurtado de Mendoza txapel fabrikako makineria. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Olalde, 2004: 67

Goiko irudian, Azkoitiako Hurtado de Mendoza Txapel Lantegiko makinariaren adibidea errepara genezake. Irudi hau hartzearen arrazoi nagusia, ehunarekin jarduten zuen Azkoitiako beste lantegietako bat izan zela da, nahiz eta produktibitate handiagoa izan, aztertzen ari garen lantegiaren makinaria txikiagoa izango zela suposa genezake. Irudian bertan, gezi gorrien bidez, turbinak energia bidaltzen zion ardatz nagusia ikus genezake, zeinak, argi eta garbi bereiz genitzakeen uhalen bidez, makinari egiten zaion energia transmisioa erreparatzen den.

Baliaras Lantegiaren analisia burutu dugunean, erakustaileak ongi adierazi digunez, bertan, ardatz nagusia kokatzen zen egituren orbanak nabariak dira, biribil forman (ikus 5.eranskina):



6. Irudia. Baliaras/2.Zonaldea/Ardatz Nagusiaren euskarria. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Bertan ardatz nagusia delakoa kokatuko zen eta bira geraezinak emanez, energia ematen egongo zen, makinei eta ardatz nagusiari berari lotuta zeuden uhalen bidez. Horrek makinak funtzionamenduan jartzen zituen eta hauek arin mantentzeko ezinbestekoa zen olioaz zaintzea. Olioak ere, bere aterabidea behar izaten zuen eta ondorioz, gaur egun oraindik lurrean nabarmen daitezkeen kanalizazio estuak erreparatu ahal izan ditugu lantegiko lehen zein bigarren zonaldeetan:



7. Irudia. 2.Zonaldea. Olio kanalizazio estaliak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga



8. Irudia. Baliaras. 1.Zonaldea. Olio kanalizazioa. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Lantegia itxiz geroztik, funtzionamendu anitzak izan ditu, horien artean nekazaritza-erreminten gordailu zein ukuilu izatea. Horren eraginez, agian, 2.Zonaldean, aipatutako makinaren olioaren kanalizazioak betekinez bete zirela determina genezake. Esan bezala, lantegiak, itxi ostean, nekazaritza eta abeltzaintzarako eremu gisan balio izan zuen eta horren emaitza dugu esaterako, turbinaren gela, ukuilu bihurtzea:



9.Irudia. Turbinaren gela: ukuilua. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Ukuiluko bigarren irudi honetan, agian ardatz nagusia koka zitekeen beste egituretako bat nabarmendu ahal da, eta beraz, antzina, bertan ere ehundegi-makinak kokatuko zirela pentsa genezake:



10.Irudia. Ukuilua: Ardatz Nagusiaren euskarria. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Gela honetan dauden eskaileretatik, bigarren solairu batean, lantegiko langileen logelak aurkitzen dira. Testigantzek zein Olalderen liburuko argazkietako batean erreparatu ahal izan dugunez, lantegi honetan lan egiten zuten gehiengoak emakumezkoak izan ziren, harik eta baserritarrak zirelarik (ikus 5.eranskina):



11. Irudia. Baliaras-ko langileak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Olalde, 2004: 60-61

Horren eraginez, lantegiko jabeek logelak ezarri zituzten lantegiaren goiko aldean lo egin zezaten, emakume zein haur guztiek:



12. Irudia. Ehuna lehertzeko gela. Egilea: Ione Muxika Zuloaga



13. Irudia. Langileen logela. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Lantegiaren barnean atetik sartu eta eskuin aldean, gaur egun ikusi ezin daitekeen baina Sabin Anduezaren testigantza bidez jakin ahal izan dugun lehorgailu handi bat kokatzen zen, 3 metroko diametroa zuena. Horrez gainera, goiko irudian ageri zaigun atetik (12.irudia), makinetan produzitzen zen ehuna lehertzeko gelara abiatzen da. Gaur egun arriskutsua izan daiteke bertaratzea, bertako egitura erortzeko zorian baitago. Hala ere, kanpotik, oraindik ere, ehunak lehertzeko balio zuen gelako leihoak (gezi gorritz seinalatuta), lantegia eraiki zen garaikoak, argi eta garbi aprezia genitzake. Egurrezko materialez eginiko leihoak ditugu, zirrikituekin, airea sartzeko:



14.Irudia. Ehuna lehortzeko gelaren leihoak kanpotik. Egilea: Ione Muxika Zuloaga



15.Irudia. Ehuna lehortzeko gelaren leihoak kanpotik. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Lantegiko leihoak kontutan hartuz, argitasun nabariko lantegia zela esan genezake Baliaraskoa: 4 leiho handi (atetik sartu eta ezker paretan) 1.Zonaldean eta 12 leiho handi (8 atetik sartu eta eskuin paretan eta beste 4ak, atetik sartu eta aurreko paretan) 2.Zonaldean (gezi gorritz, 16.irudian 2.Zonaldeko leihoen irudia eta 17.irudian, 1.Zonaldeko leihoak):



16.Irudia. 2.Zonaldeko argiztapen leihoak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga



17. Irudia. 1.Zonaldeko argiztapen leihoak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Eraikina kanpotik ikuskatzean, Anduezak adierazi digunez, bertan lantegia asegurutzen zuen Unión y Fénix aseguruaren xafla herdoila nabari daiteke. Suteak aseguratzear arduratzen zen asegurua izan zen, eta gure kasuan ere, Baliaras Lantegiak suteren bat izanez gero, babestu egiten zituen bertako eraikina eta makinariaren nondik-norakoak (García Ruiz et al., 2009: 27). Jarraian, xaflaren irudia zeina fabrikaren 1.Zonaldeko leihoen gainean kokatzen den:



18.Irudia. "Unión y Fénix" aseguruaren xafla. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Lantegiaren aurretiko aldean, garai hartan hain errotuta zegoen erlijioaren zantzuak nabarmen genitzake, izan ere, San Francisco santua ezartzen zuten egitura nabarmen baikenezake ate nagusiaren gaineko aldeko egituran (19.irudia). Horren eraginez jarri ziotela Epelde y Larrañaga konpainiako jabeek Baliaras Lantegiari “San Francisco” izena berretsi behar dugu. Modu honetan, lantegiko langileak eta haien produkzioa santuak babesten zuenaren ustea zuten.



19. Irudia. "San Francisco" santuaren irudi-euskarria. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

2.1.2. "Epelde y Larrañaga" Jute Lantegia:

Behin Baliaras itxi zenean, Epelde y Larrañaga konpainiaren jabeek, herriko gaur egungo Trenbidearen Zumardian kokatuta zuten jute lantegira eraman zuten San Franciscoren santua (ikus 5.eranskina). Jarraian doazkizue lantegiaren airetiko ortofotoak⁸:



20. Irudia. "Epelde y Larrañaga" Lantegia, trenbidea eta Juin-Torrea (1954). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Eusko Jaurlaritza



21. Irudia. "Muno" etxebizitzak, erreptidea eta Juin-Torrea (2009). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Eusko Jaurlaritza

Jute lantegia izan zen honakoa ere, baina produktibitate handiagokoa, Azkoitiako Udal-Artxiboko Matrikula Industrialetan agertu zaigun makinarietatik; bai eta ortofotoko irudia erreparatuz, Baliaras Lantegiak baino dimentsio handiagoak baitzuten. 1923rako 2254 ardatz, 140 ehundegi, 350 txirikordatzaille (trenzadora), tintoreria bat

⁸ Eusko Jaurlaritza. B5. http://b5m.gipuzkoa.eus/b5map/r1/es/mapa/localizar/M_017/capa/mapa

eta zuritze makina bat zituen, bai eta 250 hp zituen ur-jauzia ere. 1928an, konpainiak, lantegira trenbidearen desbideratzea eraikitzeko eskaera egin zuen eta hori burutzeko, udaletxeak Granadako dukeari (Villahermosa dukea) lur zati bat erosi zion. Horretarako harria, Okerkuako Azpeitiako harrobitik ekarri zuten⁹.

Udaletxea arduratu zen trenbidea egiteko gastu guztiez eta honek guztiak, industriak Azkoitian zuen garrantziaren berri ematen digu. 1920rako Epelde, Larrañaga y Cía-k 180 langile inguru zituen (Castells, 1987: 153). Izugarrizko produkzioa bi arrazoi nagusirengatik gertatu zen: alde batetik, fabriketako mekanizazio handiarengatik eta bestetik, emakumeei ordaintzen zitzaien gizonezkoen baino soldata baxuarengatik. Langile askok eta askok, fabriketan ez ezik, tailerretan ere lan egiten zuten, destajuan.

1922rako Azkoitiako Udalaren arabera, 3000 langile zeuden, 1250 tailerretan eta 1750 lan domestikoan jardungo zuketanak. Azkoitian gainontzeko gipuzkoar herrietan ez bezala, ez zen emigrazio kopuru handirik gertatu, hein handi batean, mekanizazioa garatu arren, ordura arte azkoitiarren gehiengoaren ofizioa izan zen abarketagintza garatuz joan baitzen eta horrek, herritarrak beraiek egoera berrira moldatzea ekarri zuen. Horregatik bada, Azkoitiako paisaia, langile auzo handirik ez da antzematen hamarkada hauetarako (Castells, 1987: 155).

Azkoitia, inguruko herritarren laguntzaz industrialki hasi zen herrietako baten gisan har genezake, haien lan eskuaz probestu baitzen. Tokiko baserrietatik eta inguruko herrietatik egin zen emigrazioaz baino ez ziren baliatu azkoitiar fabrikak haien ekoizpenerako, hein handi batean.

2.1.3. Azkoitiako XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako egoera, lan munduan:

Enpresariak irabazi handiak jaso bitartean, langileek gogor lan eginez, soldata xumeak baino ez zituzten jasotzen. 1911n langileek enpresariei lehen eskaerak egin zizkieten eta 1913an, Azkoitiako Langileen Juntak, eskaerak errepikatu eta ez onartzearen eraginez, grebara jo zuten. Handik aurrera, kexen jariora areagotu egin zen, harik eta 1918ko greban 1800 langileren parte hartzearekin lehen sindikatuak sortu ziren: nazionalisten Langile Euskaldunen Solidaritatea, Langile Katolikoek Sindikatuen Konfederazioa (patronalak sortua, langileen gutxiengoa) edo Sindikatu Horia eta

⁹ Azkoitiako Udal-Artxiboa. Obrak. Urteak: 1928. Signatura: 1027-05

Sindikatu Katoliko Askea (langileen gehiengoa) delakoak. Sindikatu sozialistarik ez zen garatu Azkoitiaren kasuan, guztiek kutsu katolikokoak izan ziren, herritarren erlijioarekiko lotura estua baitzen. Harik eta Epelde y Larrañagan, langileak mezara joateagatik diruz konpentsatzen ziren.

Horri aurre egiteko asmoz, 1920an Azkoitiako enpresariak Patronalaren Elkarteak sortu zuten. Eskatutako soldata ez igotzearen eraginez, 1920ko ekainaren 18an greba hasi zuten langileek eta uztailaren 15eko gauen bertan, Sindikatu Horiko kide bat eraso eta eskirol bati ere eraso zieten, bai eta enpresaburuen etxeetara harriak bota ere (Castells, 1987: 162).

1920ko uztailaren 23an enpresaburuek 1600 langile langabe utziz, lantegi guztiak itxi zituzten, langileekin akordiorik ez lortzeko, diziplinaren erakusgai eta sindikatuentzako dirua lortzen zuten langileei aukera moztuz. Hala ere, Hijos de Hurtado de Mendoza lantegiak funtzionatzen jarraitu zuen. Langileek hainbat eta hainbat eskaera egin zituzten:

“La tabla reivindicativa que presentan los obreros contenía (...) reconocimiento de los sindicatos, constitución de una comisión destinada a intervenir en las desavenencias que se susciten, reconocimiento de la jornada de 8 horas para los ‘maquinistas’, etc.” (Castells, 1987: 163).

1920ko urrian lantegiak berriro ere ireki egin zituzten, eta zenbait langile bota zituzten bertatik. Esteban Alberdi y Cía-ko eta Epelde y Larrañagako langileak lantegietara itzuli bitartean, tailerretako langileek greban jarraitu zuten lantegietatik botatako langileengatik. Lanera joandako langileen aurkako manifestaldia antolatu zuten eta horren eraginez, Guardia Zibilaren tirokatzeez, bi gizonezko, emakumezko bat eta lau gazte zaurituak suertatu ziren. Hala ere, azkarren, lantegi handietara itzultzen jarraitu zuten langileek eta gutxinaka, tailerretako langileen kasuan. 1920ko urriaren 15ean jada egoera normaltzat jo zen, eta patronoek haien diziplina irmoa inposatzen jarraitu zuten. Horri guztiari erantzuna eman asmoz, Langile Katoliko Askeen eta sindikatu nazionalistaren artean, abarketen ekoizpenean espezializatu zen Abarketen Manufaktura Elkarteak deituriko kooperatiba sortu zuten. Baina ekoiztutako abarketaren prezioa ez zenez lehiakorra, bi hilabeteren ostean kooperatiba itxi beharra izan zuten.

Emakumezkoek izugarrizko garrantzia izan zuten fabriketan eta grebetan ere 1920ko urrikoa kasu. 1924ko apirilean Patronalaren Elkarteak disolbatu egin zuten, enpresaburuek nahi adina indar zutela onartu baitzuten langileriaren aurrean.

2.1.4. Errepresioaren orbanak:

Lantegien egiturak denboran zehar aldatu egin zirela ikusi dugu, eta horien eraldaketa gauzatzeko, ezinbestekoa izan zen pertsonen beharra. Hori oinarri izanik, Baliaras Lantegiarekin zuzeneko zein zeharkako lotura izan zuten pertsonen pasarteak ikertzea erabaki dugu, Gerra Zibilean (1936-1939) eta Diktadura Frankistan (1939-1975) zehar.

Testuinguru horretan, Epelde y Larrañagan akzioak izan eta errepresioa jasan zuen Jose Echániz Iturrioren eta haren familiaren kasua aztertzea erabaki dut; bai eta Baliaras eta Epelde y Larrañaga Lantegietan lan egin zuen Pedro Anduezen kasua ere. Horretarako, haien semeak diren Paulo Etxaniz Iturbe eta Sabin Andueza elkarrizketatu ditut, dokumentazioaz eta lehen pertsonan eginiko argazkiez baliatuz.

4.1. Gerra Zibila Azkoitian:

1936ko uztailaren 18an Espainiako Gerra Zibila hasi zen, militarren estatu-kolpearen porrotaren eraginez. Hark espainiar estatuko zonaldeetan ezberdin eragin zuen eta, jarraian azalduko duguna, Gipuzkoako probintzian eta zehazki, Azkoitiako herrian zernolako eragina izan zuen izango da.

Gipuzkoako eta Nafarroako komandante nagusitzat, Solchaga koronela izendatu zuen Emilio Mola militarrek. Solchaga koronelak hiru guda talde sailkatu zituen eta horietatik Diaz de Ribera teniente koronelaren Tercio Lacar tropa sartu zen Azkoitiara 1936ko irailaren 20an. Udaletxea okupatu eta berehala, erreketek buruzagiek, hitzaldia eman zuten udaletxeko balkoitik eta horrekin bat, Tercio San Ignacio deiturikoa sortu zuten, horretarako Urola bailarako gazteez baliatuz (Aranbarri, 1989: 113). Momentu horretatik aurrera, Azkoitiako eraikinek ere egoera ezberdinak pairatu zituzten.

Hori kontutan hartuta, Juin-Torrea, Gurea Pilotalekua eta Floreaga ospitale-militarra aztertuko ditugu, lehenengoa gerra zein diktadura garaian kartzela izan baitzen, bigarrena gerra garaian tropa frankisten kuartela eta azkena, arestian adierazi gisara, gerra garaian, ospitale-militarra.

4.1.1. Juin-Torrea:



22. Irudia. Juin Torrearen sarrera. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

XVI. mendeko jauregiaren itxura badu ere, denboran zehar Azkoitiako biztanleentzako garrantzitsua den papera bete izan du Julio Urkixo Etorbidean kokatzen den Juin-Torreak. Jauregiak hiru solairu ditu, lehen solairua edo zorukoa, bigarrena (egongelak) eta hirugarrena eta azkena (ganbara eta logelak). Urte luzeetan zehar etxebizitza gisan balio arren, gure ikerketarako II. Errepublika, Gerra Zibilean zein Diktadura Frankistan kartzela izan zelako du garrantzia (Aranbarri, 1989: 95).

Eraiki zenetik, Lezama Legizamon familiaren jauregia izan da Juin-Torrea. Azken aldiz, 1929an etorri omen ziren jabeak ohiko udara oporraldia egitera. 1939an, “Terciarias Capuchinas”-en monja-etxea bihurtu zen eta horren eraginez azal genezake kartzela izan zenak gaur egun sukalde itxura izatea (ikus 6.eranskina). Sukaldea kokatzen den solairu berdinean (zoruko solairuan), tximinia dagoen tokia, monjek jantoki gisan erabiltzen zuten. Monjak, denboraldi txikian egon ziren Juin-Torrean, berehala utzi beharra izan zuten.



23. Irudia. Juin Torrea. Zoruko soilaruko gela. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Horrez gainera, jauregiaren hirugarren eta azken solairuan, sazerdoteen arropak gordetzen dituen kutxatila ikuskatu ahal izan dugu, kapila txiki baten antza duen zonaldean, meza tokia izango litzatekeelarik (Aranbarri, 1989: 95).

Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, herriko zenbait erreketek bertan egon ziren espetxeratuta. Espetxeko ate puntaduna, eraikinaren aurreko aldeko ezker aldean kokatzen da:



24. Irudia. Juin Torreko kartzelako atea. Egilea: Ione Muxika Zuloaga



25. Irudia. Juin Torreko kartzelaren atea. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Oraindik herriaren jabe ziren errepublikarren garaian espetxeratuta egon zirenen kasuan, 100 pertsona inguru izan ziren.



26. Irudia. Iraetan fusilatutako erreketeen monolitoa. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Aranbarri, 1987: 43

Diktadura Frankistan Juin-Torreko kartzelan errepublikarrak espetxeratu zituzten, Sabin Anduezaren Pedro aita kasu (ikus 5.eranskina).

4.1.2. Gurea Pilotalekua:

Gurea Pilotalekua, 1936ko irailaren 20an erreketek Azkoitiara sartzean, errekiatu eta hauen kuartel bilakatu zen.

Pilotalekuaren aurre fatxada, Aingeru kalean edo herrian bertan dioten gisara “Bastarrikalden” kokatzen da; eta atzeko fatxada edo hegoaldeko aldea eta honekin batera, bistan dituen bi albotiko aldeak, Aizkibel kalean kokatzen dira, hurrenez hurren. Herriko toki estrategikoan kokatuta dago, herriko sarreretako batean, Elgoibarreko bideko errepide alboan. Gaur egun, Jorge Oteiza eskulturagileak eginiko Zazpi Frontoiak deiturikoen ondoan kokatzen da.

Eraikinari buruzko informazioa, Azkoitiako Udal-Artxibotik, Etxaniz-Iturbe familiaren dokumentu pribatuetatik zein testigantzetatik lortu dugu. Horrez gainera, herriko 18-56 bitarteko 24 pertsoneri galdeketa egin diogu “Zuen iritziz noiz eraiki zen Gurea Pilotalekua?” eta “Nork eraiki zuen pilotalekua?” galdeginez (ikus 8.eranskina). Emaitzak interpretatuz, argi eta garbi ikus genezake, eraikitzea gehiengo batek XX. mende hasieran zehar kokatzen badu ere, nork eraikia izan zen ez dakitela; horrek jakitera eramaten gaitu, pilotalekuaren inguruko historiari ez dakitela herritarrek eta beraz, Azkoitian historia-transmisioaren etena egon dela. Atal hori isiltasunean urte gehiagoz gera ez dadin, jarraian doakizue Gure Pilotalekuaren historia.

4.1.2.1. Pilotalekuaren egitura deskribapena¹⁰:

Joaquín de Yrizar izan zen pilotalekua diseinatu zuen arkitektoa. 1893an Azkoitian jaio zen eta Diktadura Frankistan zehar, Eskola-Arkitektoa izatea lortu zuen, Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik.


Zaharberritzearen aurreko deskribapena:

Pilotalekuaren fatxada nagusiak, Aingeru kalekoak, 24,30 metro ditu. Azeko fatxadak, Aizkibel kalekoak, 25,10 metro ditu eta luzean, 39,60 metro.

Aurreko fatxadak, sarrera bakarra izango zuen publikoarentzako (lehentasunezko aulkietara eta beheko palkuetara bideratua), ezker-ezkerrean kokatuko zena, erdi-puntuko arku itxurako ate batekin (Hall Nagusirako sarrerarekin). Eskuineko erdi-

¹⁰ Azkoitiako Udal-Artxiboa. Frontón cubierto. Urteak: 1931. Promotor: José Echániz Iturrioz; Joaquín de Yrizar, arqto. Emplazamiento: Aingeru Kalea (Gurea Pilota Lekua). (Pol. 11). Signatura: 2394-05

puntuako atea, kontra-kantxara sartzeko sarrera edo era berean, idi probak gauzaten ziren tokira sartzeko sarrera izango zen.



27.Irudia. Gurea Pilotalekuaren planoak (1931). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Atzeko fatxadak, Aizkibel kaleko sarrera bakarrarekin, pilotalekuko hiru pisuetarako sarbidea ahalbidetuko zuen.

Barnealdean, lehenengo pisuan, kantxa eta kontra kantxa zeuden. Kantxan edozein motatako jarduerak egiteko espazio zabala zegoen. Kontra kantxan, idi probetarako harria kokatzen zen, zeina gaur egun egurrez estalita mantentzen den, idi-demetarako erabiltzen delarik. Kantxaren atzean, atzeko fatxadan, aulkien depositua kokatzen zen eta haren eskuinean (kantxako bista hartuz), Aizkibel kalera ematen zuen aldeko eskaierak kokatzen ziren, dokumentazioaren arabera¹¹.

Dokumentu horren arabera, aulkien deposituaren ezker aldera pilotarien bi gela eta hauen ondoan, komunak kokatzen ziren. Guztira, kontra-kantxaren eta lehentasunezko aulkien goiko aldean, hamar palko kokatzen ziren; palkoak eta lehentasunezko aulkiak batzen zituen korridorearen zabalera 1,50 metrokoa zen. Horrez gainera, honakoak aireztatzeko leiho aproposak zeuden ezarrita.

Hall Nagusian, taberna bat kokatzen zen eta sarrera nagusiaren ondoan, bi takila, ticketen salmentarako. Sarrera printzipalean, lehenengo zein bigarren pisura igo ahal izateko eskaierak kokatzen ziren, sarbidea Aizkibel kalean zutelarik.

Bigarren eta hirugarren pisuetan, eserlekuak kokatzen ziren eta, horrez gain, frontisarekiko paraleloki, bigarren eta hirugarren pisuetan eserlekuak kokatzen ziren.

¹¹ Etxaniz-Iturbe familia. Proyecto de frontón cubierto en Azcoitia Guipúzcoa, Pliego de Condiciones. Urteak: 1931ko maiatzaren 2a.



28.Irudia. Gurea Pilotalekua (1966). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal-Artxiboa.

Hormak, manposteriakoak ziren, frontisaren murrua, harlanduz trasdosatua zegoen. Bi hormak, gaur egun ere mantentzen diren matxoiekin edo ostiko-hormekin sostengaturik zeuden, guztira, hamabi zenbatu ditzakegularik, L letraren irudikapenarekin. Zoladura, hormigoiz egina zegoen eta horrez gain, asfaltoz estaltzea aurreikusita zegoen. Publikoari dagokion konposatu guztia, zementu armatuarekin eraikia zegoen, bai bigak, bai zoladura. Palkoen arteko banaketak, adreiluaren bidez egin ziren. Estalkia eusten zuten egiturak metalezkoak ziren eta, kristalezko sabaia eusten zuten uhalak burdinazkoak. Fatxada, zementuz egina zegoen.



29.Irudia. Gurea Pilotalekua. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal-Artxiboa.

Zaharberitzearen osteko deskribapena:


Gaur egun fatxada nagusian, bost ate kokatzen dira. Eskuin-eskuinekoa, kantxarako sarrera da, honen ondorengoak kontra-kantxa eta kantxarako sarbideak izanik; honen alboko bi ateak berriz, jendearen sarbideak dira eta eskuin-eskuineko ateak, tabernarako ate gisara funtzionatu izan du eta honen ondoko leihatilak, takila moduan.

Lehenengo pisuan, gaur egun 1931ko eraikinean ez bezala, ez daude palkoak, baina bai lehentasun aulkiak, eta hauek pilota partiduetan eserleku gisara balio duten arren, idi probetan kendu egiten dira, gainontzeko emanaldietarako kokatzen den egurra kendu egiten baita 1931n eraiki zen probetarako eremua irekiz. Lehen pilotarien aldagelak kokatzen ziren toki berean ere aldagela bat aurkitzen dugu, nahiz eta aldagela nagusia tabernako pasilloan egon.

Bigarren eta hirugarren pisuetan, eserleku anitzak daude eta pisu bakoitzera igogailuarekin gerturatu daiteke. Estalkia egurrezko zein burdinazko bigez eta uhalez eutsita dago. Horrez gain, gaur egun, erabilerarik ez duen terraza bat du sabaiaren goiko aldean.

4.1.2.2. Pilotalekuaren historia:

Pilotalekua, 1931ko maiatzaren 2aren ondoren hasi ziren eraikitzen, Azkoitiako Udal-Artxiboan aurkitutako planoek adieraztera ematen digutenez:



30. Irudia. "Gurea" Pilotalekuaren obran hasiera. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiko Udal Artxiboa

“Hermanos Echániz”¹²-ek haien aita zenari, Vicente Echániz Echevesteri 40.000 pezeten truke erositako lurraldean (1.256,60 m²) eraiki zuten trapezio itxurako pilotalekua.

¹² Maria Echániz Iturrioz, Serapio Echániz Iturrioz, Ignacio Echániz Iturrioz, Pablo Echániz Iturrioz eta Jose Echániz Iturrioz anai-arrebek osatutako merkataritza-sozietatea izan zen. Merkataritza-sozietatea sortu ahal izateko, kide bakoitzak 20.000 pezeta eta guztira, 60.000 pezeta ezarri zituzten, sozietateko

Pilotalekua, Milagros Etxaniz Iturberi herriko *Maxixatzen* aldizkarian 1996an eginiko elkarrizketaren bidez (ikus 10.eranskina) eta haren anaiaren, Paulo Etxaniz Iturberen, testigantzari esker eta 1931ko abenduaren 5eko dokumentu bati esker (ikus 11.eranskina) 1931ko azaroaren 30ean, San Andres egunez inauguratu zela jakin dugu.

a. Pilotalekuaren historia-faseak:

Lehenengoa 1931-1936 bitartean luzatuko litzateke: pilota partiduak, idi-probak, zinea, antzerkia, boxeoa, saskibaloia, borroka librea, zirkoa, kontzertuak ... ziren nagusi. Horretarako baimen eskaera beharrezkoa zen, jarraian, Jose Echániz Iturrioren baimen-agiriak:



31. Irudia. Jose Echániz Iturrioz-en zinema baimen karneta. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.



32. Irudia. Jose Echániz Iturrioz-en "Federación Española de Boxeo" baimen-agiria. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia

Bigarren etapa, 1936ko irailaren 20an, tropa frankistak Azkoitian sartu eta Pilotalekua errequisatu eta kuartel bilakatzetik, 1948ko azaroaren 14ra arte luzatuko litzake; hain zuzen, "Hermanos Echániz"-en eskumen osoa Jose Echániz Iturrioz esleitzen zaion egunera arte. Kuartel bilakatu zenean, militarrek bertako eserlekuak txikitu zituzten sua egiteko. Horren berri Jose Echániz Iturriozen ama Maria Iturrioz Olaechea eta aita Vicente Echániz Echeveste-ren 1938ko irailaren 21eko testamentuan ageri zaigu, bai eta pilotalekuan bertan egin ziren konponketen dokumentuetan ere, besteak beste (ikus 7.eranskina):

kaxa sozialean. Estatutuen arabera, urtero abenduaren 31n, urteko balantzea egin beharreko araua ezarri zuten (ikus 9.eranskina).

Claras requisitadas
 FERRUTERIA, BATERIA DE COCINA, CEDAZOS
 - José Alberdi -
 AZCOITIA (Dulposcos)

D. COMANDANTE MILITAR DE AZCOITIA Deber:

Fecha	Descripción	Pagos	Puntos	Ca.
12 de Mayo de 1937				
Marzo 10	Una cerradura para el frontón		4	75
23	Una ll. y un candado		12	50
25	Una ll. para la casa calle Mayor nº 38		7	--
27	Un candado para la casa de la Calle del Angel nº 7		2	--
Abril 1	Arreglos en varias casas requisitadas material: 19 tablas de antillaga		38	--
	puntas y trabajo		13	50
	una aldarilla latón		2	--
	arreglo muelle de una puerta su junta Pias.		4	--
			86	75

Francisco José Alberdi
 El Comandante Militar

33. Irudia. Gurea Pilotalekuaren sarrailla aldaketa, errekisatuta geratzen da (1937). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal Artxiboa

c.- Que el Frontón "Guría" de Azcoitia, no puede tasarse en más de cien mil pesetas, pues por haber sido ocupado por diferentes tropas, su estado de abandono, la destrucción del mobiliario y servicios, han hecho desmerecer sensiblemente a la finca y hoy no habrá quién dé por ella ni esa suma. -

34. Irudia. Gurea Pilotalekua eraitsita. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Maria Iturrioz Olaechea eta Vicente Echániz Echeveste-ren testamendua: Etxaniz-Iturbe familia.

Errepresio frankistak eragindako zorrei aurre egin ezinik (Etxaniz-Iturbe familiaren denda itxi eta pilotalekuaren jabea -José Echániz- ere kontzentrazio esparruetan egon baitzen 1942ra arte), Gurea Pilotalekuaren udaletxe frankistari saldu behar izan zitzaion, 1953an, hirugarren fasean.

4.1.2.3. Salmentaren osteko urteak:

1999an udalak bultzatuta, pilotalekuaren erreforma gauzatuko da. Frontoia guztiz eraldatuko duten arren, frontisa eta ezker pareta 1931koak mantenduko dira:



35. Irudia. Gurea Pilotalekua (1999). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal-Artxiboa

Udalak pilotalekua hartu zuenetik, pilotalekuaren funtzioa guztiz aldatu zen, idiprobak zein pilota-partiduak baitira nagusi eta ez, boxeo edo zinema. Hala ere, azken boladan zenbait kontzertu ere egin dira bertan, Berri Txarrak edo Egan musika taldeenak kasu, bai eta herriko eskoletako jaialdiak egin ere. Funtzio aldatze honen kausa nagusietako bat, agian, Gurea Pilotalekuaren inguruko informazio historikorik ez egotea izan liteke.

4.1.3. Floreagako ospitale-militarra:

3.1. Deskribapena:

Azkoitiako Izarraitz kalean kokatzen den eta 1929an Azkoitiako Udalak eraiki zuen ikastetxea dugu Floreagakoa. Gerra Zibilean hurrengo lerroetan azalduko dugun ospitale-militarra izan bazen ere, gaur egun hasierako izaera mantentzen du, ikastetxearena.

Lau eraikin nagusi dituela erreparatu genezake. Bata, umeentzako haur eskolarena. Bestea, elizarena izango litzateke:



36. Irudia. Floreaga Ikastetxeko eliza eta Haur Hezkuntza (2017). Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Ondoren, LH eta DBH-ko eskolak ematen diren tokia izango genuke:



37. Irudia. Floreaga Ikastetxea, LH eta DBH zonaldea (2017). Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Azkenik, frontoia. Denbora pasa ahala bere jatorrizko izaera lortu du Floreagako ikastetxeak.



38.Irudia. Floreaga Ikastetxe "On Bosco" Pilotalekua (2017). Egilea: Ione Muxika Zuloaga

3.2. Historia apur bat:

Errepublikarren eta frankisten arteko frontea 1936ko irailaren 20tik aurrera Eibarren kokatu zen. Bertako zaurituak sendatu asmoz, udaletxe frankistak, 1937ko martxoaren 1etik Floreagako ospitale-militarra ezarri zuen martxan. Miserikordiak, Junta Carlistak zein zenbait bizilagunek, haien ondasunak eman zizkieten ospitalean ezar zitzaten (ikus 16.eranskina. 3.dok.).

Ospitalea hornitzeaz, “Parque de Intendencia de Vitoria” delakoa arduratzen zen, zeinak Zumarragan zuen egoitzaren bidez garraiatzen zituen produktuak (ikus 16.eranskina. 4.-12.dok.).

Komandantzia militarretik, 1937ko maiatzaren 2rako Azkoitiako ospitale-militarra desegin eta hango ohe, maindire ... guztiak Markinako ospitale-militarrera eramateko eskatzen da. Lekualdatzeen atzerapenarengatik, komandantzia militarrek gogor egiten die aurka Azkoitiako herritarrei, gerran ere paper oso kaskarra bete zutela adieraziz: “(...) dando en ello una prueba más del desinterés que ese pueblo de Azcoitia ha mostrado constantemente para los heridos de guerra” (ikus 16.eranskina 15.dok.).

Azkenean, 1937ko apirilaren 29an gauzen lekualdatzea hasiko dute Markinako ospitale-militarrera.

Guztira hamar langile inguru egon ziren Azkoitiako ospitale-militarrean lanean. Hiru emakume egunero kirofanoa garbitu eta plantxatze lanak egiteaz arduratzen ziren, 4 pezetan truke. Herriko lau erizainek 1,85 pezeta kobratzen zituzten. Sukaldatzeko laguntzaileak 1,85 pezeta kobratzen zituen eta hari laguntzen zion neskatoak ez zuen ezer kobratzen (ikus 16.eranskina. 19.dok.).

1937ko martxoaren 6 arte 60 paziente inguru zeuden. Alfonso Monsally da ospitale-militarreko zuzendari nagusia (ikus 16.eranskina). 1937ko martxoaren 17an eta 1937ko apirilaren 23an zenbatu ziren paziente gehien, guztira 69-81 pertsonen bitartean ibil zirelarik hurrenez hurren. 1937ko apirilaren 23an, hain zuzen, Elgeta gogorki bonbardatua izan zen frankisten abiazioen bidez, eta horregatik esan genezake pazienteen igotzea gertatu zela Azkoitiako ospitale-militarrean ere (ikus 17.eranskina).

3. Ondorio eta hausnarketak:

Lanaren helburu nagusia, herritarrei isilarazitako historia soziala argitara ateratzea izan da. Horretarako, lanean zehar erabilitako metodo-arkeologikoez baliatu gara: testigantzak, artxibo dokumentuen kontsulta eta zuzeneko ikerketa, zeina lanean zehar argazkien bidez errepara daitekeen. Testigantzak hartzean eta zuzeneko ikerketan arazorik izan ez dugun bitartean, ikertutako bi eraikinen dokumentuen falta nabaria izan da, hain zuzen, Baliaras Jute Lantegiaren eta Juin-Torrearen kasuan.

Artxiboei dagokionez, Baliaras Jute Lantegiaren kasuan, Azkoitiko Udal-Artxiboan kontsultatutako Matrikula Industrialen bidez baino ezin izan dugu berri eduki. Juin-Torrerari dagokionez, Udal-Artxiboan Gerra Zibileko dokumentu bat baino ez dago, zeinetan bertan preso daudenek, handik ateratzea eskatzen duten. Horren eraginez, bi eraikinen kasuan, testigantzak zein eraikinen zuzeneko ikuskatzea ezinbestekoa izan zaigu eraikinen historia sortzeko orduan.

Ikerketa burutu ahala, lanaren hasieran aipatu gisan, Azkoitiako XIX. mende amaieratik XX. mende amaiera bitarteko historia transmisioaren etena egon dela berretsi genezake inkestaren emaitzek argitu digutenez (ikus 8.eranskina). Oraindik ere, ahanzturaren munstroa deitu duguna jendearen memorian bermatu den arren, ahanzturaren politikak ez duela min hori erreparatzeko balio izan erreparatu ahal izan dugu, batik bat, Paulo Etxanizi eginiko testigantzan, beraiek ez zutela barkatzen eta hark ere barkatzeko intentziorik erakusten ez duenean, azkenean berdin zaiola adieraziz (ikus 7.eranskina). Hori erreparatuz, 2007ko Memoria Historikoaren legeak, Gerra Zibilean eta Diktadura Frankistan egindako errepresioaren konpentsazioa ez zaiela eman agerian uzten du. Horra hor, non oraindik ere, Valle de los Caídos monumentutik, Francisco Franco diktadorea ateratzeko eskaera egin den kongresuan, Memoria Historikoaren legea bete dadin eta Alderdi Popularra abstenitu egin den, Iragan Hurbileko historia iraganean mantendu asmoz.

Valle de los Caídos monumentuaren inguruan hainbat eta hainbat eztabaida sortu dira, hura mantendu edo birrindu egin behar denaren inguruan. Lanaren azken lerroetan, ikerketa osoan zehar defendatu dudan zerbait plazaratuko dut, hau da, azken finean, aztertutako eraikinen gisan, Valle de los Caídos monumentuak, oraindik ere, garai ilun haietako historiaren berri ematen digula. Hala ere, errepresio bidez eraikitako eraikina izan zen aldetik, ezinbestekoa da, gaur egun mantentzen duen izaera monumentala txikitu eta haren inguruan sortu den diskurtso ofiziala aldatzea; hau da, benetan lan-baldintza kaskarretan eta errepresiopean lan egindako langileek eraikitako monumentua izan zela eta bertan, haien familien baimenik gabe hilobiratutako errepublikar askoren gorpuak daudela adieraztea.

Eredu hau Azkoitiako kasura egokitzea baino ez dagokigu. Izan ere, inguruan uste baino historia gehiagoren baitan bizi gara eta historia hori osatzen duten egituretako batzuk, eraikinak dira. Kasu honetan, gaur egun oraindik ere eraikita mantentzen diren eraikinen babestea eskatu beharra dut, hala nola, Baliaras Jute Lantegiarena (zeina nahiko egoera kaskarrean kontserbatzen den) eta Juin-Torrearena batik bat, izan ere, XXI. mendean zehar inolako funtziorik izan gabe, XX. mendean izan zituzten azken aldaketak behar bezala kontserbatu dituzte. Floreaga Ikastetxea goitik behera aldatua izan zen ordea eta Gurea Pilotalekuaren kasuan, ia guztiz eraldatua izan zen 1999an berriztatu zutenean, idi-demarako harrizko lurra eta frontisa zein ezker-pareta baino ez dituelarik mantentzen 1931koen gisan. Horrela beraz, Azkoitiako herriko lau eraikin hauen babestea ezinbestekotzat jotzen dut, azkoitiarrek beren historiaren berri jakiteko ezinbestekotzat jotzen baitituzte. Izan ere, eraikin horien inguruan, herritarren ehuneko batek bere Memoria Kolektiboa osatuta du jadanik, hain zuzen, eraikin hauek atzean ezkututzen duten historia dakitenek eta isilarazia izan zaienek. Horregatik, behar-beharrezkoa da eraikin hauek guztiak mantentzea, diskurtso ofiziala ezbaian jartzea lortzen baita, eraikin hauen historiaren kontaketa bidez. Bereziki, Xurxo Ayán-ek bibliografian eskuragarri duzuen artikuluan argitzen digun gisan, Gerra Zibileko eta diktadurako kultura-materialak inongo legeren babesik ez baitu, Castuerako kontzentrazio esparrua Bien de Interés Cultural bakarria delarik (Ayán, 2016: 268).

Horrez gainera, kontaketa honen bidez, Azkoitiako Memoria Kolektiboaren zabaltzea egin genezake eta historiaren transmisio etena konpon genezake, Azkoitiako eskoletan bertan ikerketa honen emaitzak argitara emanaz, bai eta hitzaldiak zein panel

informatiboak eraikin hauen inguruan ezarri ere. Esaterako, eskoletara bertara, bizipen haiek guztiak pasa zituzten testiguak eraman daitezke, ikasle eta testiguaren arteko elkarrizketa sortu ahal izateko eta memoria isildua gogora ekartzeko. Zenbaitetan, Castuerako (Extremadura) herrian esaterako, komunitatean bultzatutako arkeologia proiektua martxan jartzea ezinezkoa gertatu zen, oraindik ere Gerra Zibila eta osteko diktadura oso politizatuta egoteagatik (Ayán, 2016: 264).

Eraikin haiek guztiek, XIX. mende amaierako eta XX. mendeko azkoitiarren eremu produktiboa zer-nolako izan zen berreskuratzeko ere balio digute, industria gizarte baten adiera ematen digutelarik, errepresio tresnaz aparte.

Ikerketa honen guztiaren bidez, errepresiopean egondako bi familien historia argitara ateratzea lortu dugu, Azkoitiako eraikin ezberdinen azterketaren bidez. Ikerketan burutu dugun historia soziala egitea nahitaezkoa da, memoria isilduarazi zaion gizarte batek erreparazioa izan dezan eta Memoria Kolektiboa berreraiki.

Pausoz pauso, eraikinen funtzioa, denboran zehar, ezberdina izan dela frogatu ahal izan dugu. Hau da, eraikinen hasiera batean betetzen zuen funtzioak ez duela determinatzen haren izaera. Horregatik, eraikin bat aztertzean, hura eraiki zenetik gaur egunera arte izan dituen funtzio ezberdin guztiak kontutan hartu beharra ditugu, eraikinek ere, prozesu historiko baten jabe baitira.

Gizarteari bere historia sortu eta beraiek interpretatu ahal izateko, nahitaezkoa dugu, eraikinen interpretazio historikoa, eta haiek ikertzeko ere, gizartearen, hau da, eraikin haietako bizipenak lehen eskutik azalduko dizkiguten pertsonen testigantzak izatea, dokumentu historikoekin bat.

Bibliografía:

Liburuak:

ACOSTA BONO, G.; DEL RÍO SÁNCHEZ, A.; VALCUENDE DEL RÍO, J.M. 2007. *La recuperación de la memoria histórica: una perspectiva transversal desde las Ciencias Sociales*. Sevilla: Fundación Centro de Estudios Andaluces

ARANBARRI ETXANIZ, S. 1989. *Anai arteko borroka Azkoitia'n: 1936-1939*, Azkoitia: Litografía Danona, S.Coop.

ATALIVA, V. 2010. *Arqueología, memorias y procesos de marcación social (acerca de prácticas sociales pos-genocidas en San Miguel de Tucumán)*. Alicante : Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes

AYÁN VILA, X. 2016. “¿Un mundo en guerra? Públicos, comunidades y Arqueología del Conflicto.” In: M. Díaz-Andreu, A. Pastor Pérez and A. Ruíz Martínez, ed., *Arqueología y comunidad: el valor social del patrimonio arqueológico del siglo XXI*, 1st ed. Madrid: Jas Arqueología Editorial, 259-276

CERDÀ, M. 2008. *Arqueología industrial: teoría y práctica*. Valencia: Universitat de Valencia

HERRERAS, B.; ZALDUA, J. 2011. *Arkeologia Industriala Gipuzkoan egungo egoera*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia

MARTÍN PALLÍN, J.A.; ESCUDERO ALDAY, R. 2008. *Derecho y memoria histórica*. Madrid: Trotta

OLALDE JUARISTI, J.J. 2004. *Azkoitia iruditan*. Azkoitia: Barriketatik

PARDO ABAD, C.J. 2016. *El Patrimonio Industrial en España. Paisajes, lugares y elementos singulares*. Madrid: Akal

QUIRÓS CASTILLO, J.A. 2013. *La materialidad de la Historia. La arqueología en los inicios del siglo XXI*. Madrid: Akal

Artikuluak:

ACOSTA BONO, G. 2006. “La memoria como patrimonio: los proyectos BAMSA y Todos los Nombres”, *PH: Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 14 (58): 120-122

CASTELLS ARTECHE, L. 1987. “El desarrollo de la clase obrera en Azcoitia y el sindicalismo católico (1900-1923)”, *Estudios de historia social*, 42-43: 151-180

GARCÍA RUIZ, J.L.; CARUANA DE LAS CAGIGAS, L. 2009. “La internacionalización del seguro español en el siglo XX”, *Revista de historia industrial*, 41: 17-47

GONZÁLEZ RUIBAL, A. 2008. “Arqueología de la Guerra Civil Española”, *Complutum*, 19 (2): 11-20

GONZÁLEZ RUIBAL, A. 2009. “Arqueología y Memoria Histórica”, *Patrimonio cultural de España*, 1: 103-122

LEITON, DIEGO M. 2009. “Hacia una arqueología del pasado contemporáneo.” *La Zaranda de Ideas. Revista de Jóvenes Investigadores en Arqueología* 5: 65-83. Buenos Aires.

SALERNO, M.A. 2012. “Arqueologías de la clandestinidad. Una revisión de los trabajos efectuados en los centros de detención clandestinos de la última dictadura militar en Argentina.”, *RUHM: Revista Universitaria de Historia Militar*, 1 (2): 49-84

Artxiboko dokumentuak:

Azkoitiako Udal-Artxiboa:

- Barne erreforma eta zabalkunderako plana. Urteak: 1924...1926. Signatura: 1020-01. Kodea: 251
- Exptes. Adquisición Bienes. Urteak: 1950-1953. Signatura: 1363-3. Kodea: 26
- Frontón cubierto. Urteak: 1931. Promotor: José Echániz Iturrioz; Joaquín de Yrizar, arqto. Emplazamiento: Aingeru Kalea (Gurea Pilota Lekua). (Pol. 11). Signatura: 2394-05
- Obrak. Urteak: 1928. Signatura: 1027-05

- Ospitale-militarra. Urteak: 1937. Signatura: 1013-02
- Padrones y matrículas (industriales). Urteak: 1870-1910. Signatura: 1398. Kodea: 322
- Padrones y matrículas (industriales). Urteak: 1911-1937. Signatura: 1399. Kodea: 322

Etxaniz-Iturbe familia:

- Etxaniz-Iturbe familia. Proyecto de frontón cubierto en Azcoitia Guipúzcoa, Pliego de Condiciones. Urteak: 1931ko maiatzaren 2a.

Web orriak:

Añamendi Entziklopedia. *Yute*. 2017ko martxoaren 17an kontsultatua, <http://www.euskomedia.org/aunamendi/144486>

Eusko Jaurlaritzak. *B5*. 2017ko martxoaren 21ean kontsultatua, http://b5m.gipuzkoa.eus/b5map/r1/es/mapa/localizar/M_017/capa/mapa

Eranskinak:

1. Eranskina:



1.Eranskina. Katuin ibaiko presa. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Irudia: Katuin ibaiko presa. Bertan fabrikako depositura ura bideratzeko kanalizazioa ireki zen. Ura gaur egungo Elgoibar bideko errepidearen azpitik pasatzen da eta handik fabrikaren ondoko etxebizitzan kokatzen den depositura iristen da. Egilea: Ione Muxika Zuloaga.

2. Eranskina:



2.Eranskina. Ukuilua: Baliaras fabrikako turbina. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Irudia: Fabrikako makinak martxan jartzen zituen turbina, gaur egun ukuilu forma duen zonaldean kokatzen zen. Fabrika itxi ostean estali egin zen, eta arestian adierazi gisan, zonalde honek ukuilu gisa funtzionatu zuen. Gaur egun ez du inolako funtziorik, baina turbinak oraindik bertan dirau. Egilea: Ione Muxika Zuloaga.

3. Eranskina:



3.Eranskina1.Zonaldea. Ardatz Nagusiaren euskarri-egiturak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Irudia: Baliaras Jute Lantegiko lehen eraikina dugu. Bertan 1885ean Udal Artxiboan agertzen diren 4 ehundegiak kokatuko ziren hasiera batean. Geroago gehiago ere bai eta horren eraginez, 2. Zonaldea deitu diogunean (egitura honen atzeko gelan) makineria gehitu zen. Goiko aldean, turbinak sortzen zuen indarra makinara bideratzeaz arduratzen zen ardatza eusten zuten egurrezko euskarriak identifika genitzake. Hori argi eta garbi errepara genezake herriko Etxaniz-Iturrioz lantegiko irudian ere (Olalde, 2004: 50):



3.Eransk. "Etxaniz-Iturrioz" lantegia: Ardatz Nagusiaren euskarri-egiturak goian ezkerrean. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Olalde, 2004: 50

Ezin genezake ordea, zehaztasunez jakin fabrikako 1. Zonaldea deitu diogun honetan zenbat makina kokatzen ziren, 2. Zonaldean (ezin genezake hemen ere zehaztasun handiz makinen kopurua adierazi, nahiz eta haien markak kokatu) ez bezala, makinak eusten ziren lurreko markak falta baitira.

4. Eranskina:



4.Eransk. 2.Zonaldea. Makinen oinarrien egiturak. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Irudia: Baliarasko Lantegiaren 2. Zonaldetzat izendatu dut honakoa. Bertan, fabrikak funtzionamenduan zegoen bitartean, I. Mundu Gerraren ostean produkzioa hazi zuenetik ezarri ziren 78 makinetako kopururik handiena ezarriko zela estima genezake, espazioa handiagoa baita, eta 1. Zonaldean ez bezala, makina lurrera lotuta egotearen marka gehiago aprezia baikenitzake. Hala ere, 2. Zonalde honetan kokatu ziren makina kopurua zehaztea ere ez da lan erraza, makina guztien eusteko markak ez baitaude. Egilea: Ione Muxika Zuloaga.

5. Eranskina:

Azkoitian, 2017ko apirilaren 28an

Ikus-entzunezko kamera bidez harturiko testigantza. Testigantza hartzaileak, aurretiaz planteatutako galderak zein elkarrizketatuaren bidez sortutako galdera jarioa egin dio.

Elkarrizketatzailea: Ione Muxika Zuloaga

Elkarrizketatuaren izen-abizenak: Sabin Andueza

Adina: 80 urte

Jaiotza-lekua: Azkoitian, Baliaras Jute Lantegiari lotutako etxean.

Baliaras Lantegia: Ez nuen fabrika martxan ezagutu, baina aitak kontatutakoa adieraziko dizut. Ukuiluan turbina zegoen. Turbina zegoenean, motor handi bat zegoen bertan eta fabrika osorako indarra ematen zuen, uhal eta ardatz nagusiekin bideratzen zuen indarra. Turbinaren tokia gero ukuilua izan zen.

Lantegiaren 1.Zonaldea: bertan ere makinak kokatzen ziren, baina ez dago lurreko markarik. Hala ere, sabaian, makineriaren uhalak eusten zituen ardatz nagusia eusteko egiturak mantentzen dira.

Lantegiaren 2.Zonaldea: Paretako egituretan “kojinetek” zeuden eta ardatz nagusiak zeuden uhalekin makinetara bideratzen zutelarik indarra. Lurreko laukien markak, makinak kokatuta zeuden tokia ziren eta lurrean agertzen diren hobiak, makinen olioak kanpora bideratzen zuten kanalizazioak ziren. Sarreran jutea lehertzeko 3 metro diametroko lehorgailua zegoen, 4.000kg inguru pisatuko zituen, burdin-kolatu eta kobrez eginikoa zen.

Turbinarako ura Katuin ibaiko presa honetatik hartzen zuten, eta hemen alboan, pertsona bat kabitzeko moduko hobi bat kokatzen da, ura ibaitik (errepidearen azpitik) fabrikaren ondoko depositura eramaten duelarik.

Hemen (deposituan) Katuin erreka presatik hartutako ura depositatzen zen. Gero hemendik, fabrikako turbinara joaten zen ura. Depositua 40 metro luzeran eta 40-50 metro zabaleran izango zituen eta hondoa 1,80 metro izango zituen.

Turbinatik irteten zuen urak, fabrikatik Madariaga erreka irteten zuen.

Fabrikako emakumezkoak baserrietatik etortzen zirenez, ordu asko egiten zituztenez bertan eta gauean etxera joaten ez ibiltzeko, logelak kokatzen ziren fabrikaren gaineko zonaldean.

San Francisco fabrikako atearen gaineko egituraren, San Francisco santuaren irudia zegoen. Eta fabrika hau itxi zutenean, Epelde y Larrañaga-koena zenez, Intsaustin haiek zuten fabrikara eraman zuten santua.

Zure aitak Baliaras Lantegian lan egin al zuen?

12 urterekin hasi zen lanean bertan eta Baliaras itxi zutenean, Intsaustiko Epelde y Larrañaga fabrikara joan zen lanera, 65 urte egin zituenera arte. Aita Baliaras Jute Lantegiari itsatsita dagoen etxean jaio zen.

Pedro Andueza:

Ezkondu zenean, fabrikaren etxera etorri zen. Behin ere ez zen politikoa izan, ehiztaria bakarrik. Baina gero Juin kartzelara eraman zuten, batetik nazionalista zelako eta bestetik, nazionalistak Sasibi baserrira armak ekartzen ikusi zituelako eta haiek ikusten ari zela, bera ere hartan parte hartzen ari zelakoan, horregatik kartzelaratu zuten erreketee. “Pedro armen guardixen zio” esan zuelako Juin-Torrera eraman zuten, 5-6 hilabete pasatu zituen kartzelan eta ondoren, multa ordainduta kartzelatik irten zuen.

6. Eranskina:



6.Eransk. Juin Torreko kartzela eremua, azken eraldaketak sukalde bihurtua. Egilea: Ione Muxika Zuloaga

Irudia: kartzela moduan erabili zen zonaldea, seguruenik, 1939an, monja-etxea bihurtzean, sukalde bihurtua. Egilea: Ione Muxika Zuloaga.

7. Eranskina:

Erreterian, 2017ko apirilaren 8an

Ikus-entzunezko kamera bidez harturiko testigantza. Testigantza hartzaileak aurretiaz planteatutako galderak egin dizkio Paulo Etxaniz Iturberi eta elkarrizketa hari hori jarraituz moldatu da:

1. Zure izen-abizenak?
2. Noiz eta non jaio zinen?
3. Amaren izena? Eta aitarena? Zertan egiten zuten lan?
4. 1936ko irailaren 20a, tropa frankistak Azkoitiara sartu ziren eguna nola gogoratzen duzu?

5. Zure amak dendan egiten zuela lan ulertuta dut, zer gertatu zen dendarekin tropa frankistak sartzean?
6. Aita eta anaia zaharrena Gerra Zibilean borrokatu zuten. Zein frontetan ibili ziren? Zer nolako etorkizuna bizi izan zuten?
7. Zure aita Gurea Pilotalekuaren eraikitzaileetako bat izan zen. Nola eraiki zuten? Noiz? Gerra garaian zer gertatu zen eraikinarekin?
8. Floreagako ospitale-militarraz gogoratzen al zara?
9. Juineko kartzelaz zer gogoratzen duzu?
10. “Balixa”, “Baliaras” edo “San Francisco” jute-lantegiaren inguruan zer bait gogoratzen al duzu?

Elkarrizketatzailea: Ione Muxika Zuloaga

Elkarrizketatuaren izen-abizenak: Paulo Lucio Jose Cipriano Etxaniz Iturbe Iturrioz Arrizabalaga

Jaiotze-data eta tokia: 1924ko martxoaren 3an, Azkoitian, Santikua etxeke lehenengo pisuan.

Aitaren izen-abizenak: Jose Echániz Iturrioz

Amaren izen-abizenak:

- Juana Iturbe Arrizabalaga.
- Lana: dendan, beti dendan ezagutu nuen. Gero gerra denboran, plazan goxokiak saldu zituen amak, denda itxi egin baitzioten. Bost anai-arreba mantendu beharra zituen amak eta neu zaharrena 12 urterekin. Horregatik eman zioten amari denda plazan. Amak esaten zuen, ez gintuela bidaliko Falangeko komedorera bazkaltzera, ahal zuen dena egingo zuela amak berak mantentzeko.

Zenbat anai-arreba zineten?

Anai-arrebak Rafaela, Milagros, Maite, Karlitos, Bixente eta ni ginen eta, gerran zehar Bixente izan ezik gainontzekoak amarekin geratu ginen. Ni jaio aurretik ordea, bi anai hil egin ziren bata, 9 hilabeterekin eta bestea, urte eta erdirekin.

Ni zesta puntan ibiltzen nintzen eta Rafaela frontenisean. Zesta puntan profesional bezala nahi nuenez aritu, Donostiara joan beharra izaten nuen bikoteak egin ahal izateko. Halako egun batean, Donostiara eman behar ninduen kamioia matxuratu egin zen eta neuk bakarrik nekienez konpontzen, Donostiara ezin joanda geratu nintzen. Hurrengo egunean badaezpada Donostiara joan nintzen, baina bikotea jada egina zegoen eta hori ikusita, ez nintzen gehiago Donostiara joan jolastera.

Rafaela, arrebetan zaharrena, Sabadellen, Bartzelonan, Madrilen, Logroñon, Kanariasen ... ibili zen frontenisean. Hura eta bi donostiar gehiago joaten ziren entrenatzera eta ni zenbaitetan beraiekin ibiltzen nintzen jolasean.

Non egin zenuen lan?

12 urterekin lanean hasi nintzen, alpargatak josten, hiru urtez egon nintzen lanean alpargata josten. Dukeko baserrira joaten nintzen, eta neuk egindako karro batekin joaten nintzen, gerra garaian, egur bila, egunero-egunero etxera ekartzen nuelarik egurra; eta ez nintzen eskolara joaten. Goizean jaiki eta Paka "Porruekin" joaten nintzen egurraren bila, biak karroari tiraka joaten ginen. Egur luzeak eta zakuak betetzen genituen karroan. Egur asko egoten zen beti eta bertako baserriko jabeak, Dukeak, uzten zigun egurrak jasotzen. Egunkaria irakurtzen nuen 12 urterekin eta gerrako berriez gogoratzen nintzen. Etxe atzean biltzen nituen egur guztiak eta dendaren atzean taberna ere bazegoen (nik dakidala "Korea" izenez ezagutua).

Horrez gainera, San Martin kalean alpargatak josten nituen banku baten gainean, Mancisidorren fabrikatik lortzen genituelarik 12 bikote alpargata bost puntera muturrean eta atzean ere punterak ematen genizkiolarik, guztira hamar puntera eta oso kostosoak izaten ziren eta horiek egitea 12 zentimo pezeta izaten ziren. Hori esnea erosteko erabiltzen nuen. Gero Eibarrera joan nintzen lanera, Zarautzeko Luis Tomas delakoa "Dulces y Caramelos Lizarazukoak" lagunduta; untxientzat kaiolak egiten ari nintzela, gutxi gorabehera 100 untxi inguru edukitzen nituen, etxean jateko eta horrek baserritarrak haserretzen zituen, izan ere, belarra hartzen nien bai eta futbol zelaitik ere untxiei jaten emateko. 14 urterekin 1938an, lanera joan nahi nuen Eibarrera eta horretarako zertifikatua behar nuen fabrikara sartzeko; horretarako, udaletxera joan nintzen eta bertan, Círculo Carlista-ko kidea eta idazkariaren (Urrestarazu) semea zeuden: Paulo nintzela esan eta segidan jada bazekiten zeinen semea nintzen eta halaxe ipini zidaten: "Paulo Echániz Iturbe se le puede dar trabajo fuera de esta localidad

aunque su padre y un hermano mayor han sido enemigos y contrarios del actual Movimiento Nacional”. Zertifikatua ez nuen behin ere Eibarrera eraman. Luis Tomasek ikusi egin zuen oso ondo moldatzen nintzela zerrarekin, eta bere zur-fabrikara eraman nahi ninduen, baina amak esan zion mekanikoa nahi nuela izan. Gerra denboran Luis Tomasi esker, Orbea fabrika sartu nintzen eta egunean espolearako 1200 tornillo txiki egiten nituen, leherketetarako erabiltzen zirenak. Eibarren 22 pezeta irabazten nituen egunean, kafesnea, lo egin, bazkaldu eta afaldu 5 pezeta galtzen nituen eta 17 pezeta amari ematen nizkion.

Manolo Xeme erbestean Frantzia egon zen gerra ostean, eta gero Eibarren jardun zuen lanean, berak gomendatu zidan zertifikatuaren bila joatea Azkoitiko udaletxera Eibarreko fabrika sartzeko.

Nola gogoratzen duzu tropa frankistak Azkoitiara sartu ziren unea?

Baratzean zulo bat egin nuen eta “rodamientoak” (errodamenduak) sartu nituen, Bilbora alde egin behar genuela uste nuelako. Gainera “rodamientoekin” batera soldadu frankistek oparitutako 5 bala nituen. Horregatik amak astindua eman zidan. Bost pistola topatu nituen gainera, txalupa bat nuen ibaian eta zubitik pistolak bota zituztenean harekin hartu nituen. Txaluparekin berdura plazara joaten nintzen. Hiru revolver Guardia Zibilari entregatu behar izan nizkion, eta pistola oso polit bat ere banuen, txikia eta ona. Modesto deitutakoak kargadorerik gabeko pistola handia zuen eta nik ederra kargadorearekin. Amak esaten zidan pistola hura entregatzeko. Modestorekin eztabaidatzen ari nintzela pistola ikusi zidan amak, eta nik esan nion Modestori ez niola emango “gero nire aita pistola honekin hiltzeko eman behar diot?”; uretara botako nuela esaten nuen, baina parte emateko beldurrez, amak esanda, Modestori eman nion pistola, hura erreketen semea baitzen.

Non ibili ziren aita eta anaia zaharrena Gerra Zibilean zehar?

Lehenengo Bixente eskopetarekin Irungo frontera joan zen; 50 metro egiten zituen eskopeta hark tiro, eta erreketek 4km-ra tirokatzen zituenak zituzten. Aita bixitan joan zen Bixenteren alde eta hark ere fusila hartu zuen eta beraien kontrari, Gregorio lehengusua Iruñakoa, erreketekin eduki zuten. Tankeetan ibili zen aita zauritu arte, kanoiaren atzera-egitearekin zauritu zuten. Hasieran oinezkoa zen aita eta metrailadorearekin ibiltzen zen, baina gero tankearekin ibili zen. Errepublikarrek,

Oviedoko kuartela hartu nahi zuten, baina ezin izan zuten hartu, eta orduan zauritu zen aita bekain artean min hartuta. Gurutze Gorritik kartak iristen ziren etxera, ez zela errekueratuko adieraziz, baina azkenean errekueratu egin zen. Santanderren zeudela Asturiasera nahi zuten joan eta bidean italiarrak topatu zituzten; horren aurrean, erasotzea erabaki zuten. Espiarekin ikusi zuten italiarrak han zeudela. Italiarrak masakratu egin zituzten eta Asturiasera nahi zuten pasatu, baina ezin izan zuten pasatu, izan ere, zubia dinamitatuta zegoen. Faxistak mendian eta inguruan zeudelako, Santanderrera itzuli beharra izan zuten. Bueltan, jende piloak ikusi zuten hilda, beraiek hildako italiarrak ziren. Santanderren tankeak desmuntatu eta Santanderreko portuan utzi zituzten.

Kanpo kontzentrazioa eta kartzela garaiak:

Preso hartu zituzten bertan eta aita sukaldaria zela adierazi zien, nahiz eta hala ez izan. 5 heriotza-zigorrekin egon zen aita eta Salsamendi jatetxeak salbatu zuten. Gerra garaian Bilbo aldera zihoazela Irundik Frantziara pasatu ziren, ibaia pasatuz, handik arrantzako itsasontzian Donostiara bideratu ziren CNT-ko kuartelera eta handik, Oriora joan behar izan zuten aguantatzen ari zirenak. Nazionalak ez ziren altxatu zirenak “los traidores” deitzen nien nik, eta ez nazionalak.

Orion zeudela oraindik ez zeuden mendietan eta lubakietan jarduten zuten tiroka aita eta anaiak. Orioko Salsamendikoak aitaren lagunak ziren. Orion geratu zen Salsamendin, eta lo egitea nahi omen zuten, pixka bat deskantsatzea nahi zuten, aulki batzuetan bada ere; eta jaten ere eman zioten. Aitak esan zien baliozko gauzak gordetzeko, izan ere, “ladrones de carretera” delakoak etorriko zirela laster. Azkenak joaten ziren gerran lapur haiek, izan ere, erreketek sartu baino lehen etxeetan sartzen ziren lapurretak egiteko. Goizeko 03:00-04:00 aldera, ate joka hasi zitzaizkien eta CNT-koen buruzagiak zein zen galdetu zuen: erregistratzera zetozeela esan zuten ate joka zebiltzala eta aita esan zuen ezer ez zutela han erregistratuko. Bidali egin zituzten horiek eta eguna zabaltzean, Oriotik oinez mendiz mendi Zarautzera iritsi ziren. Zarautzen zeudela, gauez, aita Azkoitira etorri zen, irailaren 19an itzuli zen. Aitak esan zigun amak eta guk (anai-arrebek) ezer ez genuela egin eta beraz, ez zigutela ezer egingo eta etxean geratzeko. Aita eta anaia afusilatu egingo zituztela harrapatuz gero, baina gu ezetz eta etxean geratzeko. Horrela, hurrengo egunean, irailaren 20an frankistak sartu ziren eta Eibarren Maltzagan errepublikar eta frankistak irailaren 21etik 1937ko martxo ingurura

arte bertan egon ziren. Oviedo fabrikatik munizioa lortu zuten errepublikarrek eta horrela aguantatzea lortu zuten. Eibarreko frontetik aurrera, tankeak hartu zituzten aita Joxe eta anaia Bixentek.

Azkoitian bonbardaketak:

Azkoitian beti abioiak pasatzen ziren, eta ehundaka. Zubi azpira joaten ginen abioiak etortzean, zubi txiki eta lodiaren azpira. Eskailera luzeetatik jaisten ginen eta taulak jarri eta jendea zubi azpian egoten zen. Inguruko jende guztia zubi hartara joaten ginen. Etxe azpia ez zen ona geratzeko eta aitak han babesteko esan zigun. “Patatero”-neko etxea jo zuen albotik behin hegazkin-bonba batek. Gehiago ordea ez zen bonbardatu Azkoitia. Herritar askok, “Karetxe” familiakoek bidali zituztela hegazkin-bonbak adierazi zuten.

Zer gertatu zen dendarekin tropa frankistak Azkoitiara sartzean?

Astelehena zen, orduan tabakoaren sakea egiten genuen, hori aurretik ordaindu behar izaten genuen, ondoren dendan tabakoa zerbitzatu ahal izateko. Goizetik kamioika patata erosi zizkion amak betiko merkatariari. Patatak sartu eta tabakoaren sakea sartu ostean dendan, Fernando D’Ors teniente erreketea delakoa dendara etorri zen. Ni, dendara iritsi nintzen eta sartu egin nahi nuen, baina hasieran tenienteak ez zidan utzi. Amak esan zion bere semea nintzela eta amaren ondoan biok negarrez egon ginen, besarkaturik. Tenienteak hauxe esan zion amari: “por menos hemos fusilado a familias enteras, pero el pueblo es el que le ha salvado” . Baina nik beti galdetu izan diot nire buruari zergatik esan zigun hori, Joxe eta Bixentek beraien ideiak zituzten, baina guk ez genekien ezer. Sakea eta guztia eraman zuten erreketeez eta denda sei hilabetez itxita egon zen. Horregatik larunbat eta igandeetarako ezarri zuen denda amak plazan.

Nork errekisatu zizuen estankoa?

Felipe Arzalluzek errekisatu zigun “número 1” estankoa, Etxaniz-Iturbe familiarena zena.

Zer errekisatu zituzten frankistek?

Atanok Goiko Taberna errekisatu zuen, bai eta Gurea Pilotalekua ere, beste zenbait gauzen artean. Horiek herriko nagusiak izan ziren, Arzalluzekin batera, Gerra eta Diktadura garaian zehar.

Gurea Pilotalekua:

Erreketak Azkoitiara sartu bezain laster dendara etorri ziren bertako giltzaren bila “la llave del frontón” eskatu zizkiguten.

Gurea Pilotalekua erreketean kuartela izan zen tropa frankistak sartu zirenean, errekiatu egin baitziguten. Gerra bukatu eta gero arte “como cuartel” egon zen. Erreketek pilotalekuko silak hautsi eta sua egiteko erabiltzen zituzten.

Pilotalekua, 1931ko azaroaren 30ean ireki zen, San Andres egun batean. Frontoiarenean benetako eraikitzailea aita izan zen, hura ibiltzen baitzen obra kontrolatzen eta Joakin Irizar arkitektoaren planoak berrikusten. Lau anai-arreben Serapio, Inazio, Paulo eta monjaren Maria presidentea izan zen aita.

Paulo Etxaniz Iturrioz apaiza:

Ni, osaba frailearen lehen iloba izan nintzen eta horregatik, Paulo izena jarri zidaten neuri ere. Bilbon egoten zen osaba, eta noizbehinka etortzen zen Azkoitiara. Santanderren zeudela, gerra denboran bazkaltzen ari zirela bonba erori eta hil zen. Aitak bere anaia hilda ikusi zuen, hilobiratu eta muxua eman zion. Santanderren dago hilobiratuta Paulo. Paulo Amaiurko batailoilarekin ibili zen frontean, bertako kapilau izan zen. Gerra denboran Bilbotik alde egin zuen eta Azkoitiara kalez-jantzita etorri zen txapel bat jantzita, izan ere, Bilbon fusilatuko zuten beldur zen. Erreketek Donostiara sartu zirenean berriro ere Bilbora itzuli zen eta gero Amaiurko batailoilarekin hil zen.

Floreagako ospitale-militarra gogoratzen duzu?

Ez, ez dut gogoratzen.

Aitari eginiko bisitak, Deustuko Unibertsitateko kontzentrazio-eremuan:

Aita bisitatzera joaten nintzen Eibarretik Bilbora trenean, ama ere joaten zen nirekin batzuetan. Aitak kontzentrazio esparruan (nik dakidala Deustoko Unibertsitatean) elizako lanak egiten zituen eta horrek askatasun gehiago ematen zion, izan ere, elizaren inguruan asko zekien.

Julian Urrestarazu, herriko sekretarioa:

Aita libre utzi ostean Iruñara joan zen, izan ere, behin Julian Urrestarazu sekretarioak ikusi egin zuen Azkoitian eta horren eraginez, Ondarretako kartzelara eraman zuten.

Pilotalekua inauguratzeko garaian ere izugarria egin zion Urrestarazuk aitari, Pilotalekua irekitzeko paperez bera (Urrestarazuk) arduratuko zela hitza eman zion. Baina Jose sekretarioarekin ez zen fidatzen, politikoki oso ideia ezberdinak baitzituzten.

Goizean Usula taxian Donostiara joan zen aita, bere laguna zena “Íntimo amigo del Gobernador Civil” baitzen. Aitak hurrengo egunean pilotalekua ireki behar zuela adierazi zion. Aita eta biak Gobernadore Zibilarena joan ziren eta orduan gobernadoreak dokumentua egin zion pilotalekua ireki ahal izateko. Egun bertan Josek bere laguna eta gobernadorea bazkaltzera gonbidatu zituen eta horren ostean aitak gobernadoreari eta lagunari, bakoitzari, 500 pezeta eman zizkien faborearengatik (garai hartan, 5 hilabeteko soldata izaten zen). Orduan aitak Inazio osabari deitu zion pilotalekua inauguratzeko, baina Urrestarazuk adierazi zion ez zela dokumenturik iritsi udaletxera eta ea zertan ari zen. Inaziok argitu zion anaiak pilotalekua inauguratzeko baimena eman ziela. Hori guztia pasa ondoren, aitak, Urrestarazuri, pilotalekura hurbiltzen bazen akabatu egingo zuela esan zion.

Ondoren gerra etorri zenean, aitak Urrestarazu harrapatzen bazuen nik badakit hil egingo zuela; eta alderantzizko kasuan ere huraxe egingo zuen Urrestarazuk aitarekin, izugarrizko gorrotoa zieten elkarri.

Behin ama bere plazako dendan zegoela, Urrestarazuk argazki bat erakutsi zion, non aita eta Bixente semea bandera errepublikarrarekin agertzen ziren eta Urrestarazuk honakoa esan zion amari“ A éstos si los cogen, los van a fusilar”.

Estraperloa eta Felipe Arzalluz:

Aita estraperloan ibiltzen zen eta egun haietako batean, Eibartik bueltan, Felipe Arzalluz autobus gidari eta erreketeari Azkarate behean geratzeko eskatu zion, aitak eskua igoko ziola geratzeko adieraziz. Hori guztia adostu arren, Arzalluz ez zen geratu ere egin autobusarekin. Aita gauez oinez itzuli zen Azkaratetik Azkoitira eta aitak niri gertatutako guztia kontatu zidan. Orduan 12 km zeuden Azkarate behetik Azkoitiara, eta mendiz ibili beharra zegoen.

Nik Arzalluzekin egiten nuen lan “Autobuses La Guipuzcoana” enpresan eta aurreko gauean gertatutako guztia azaldu nion Bravo nire nagusiari. Goiz hartan, Arzalluzek, autobuseko frenoak kaltzatzeko esan zidan, baina nik esan nion ez nizkiola kaltzatuko, aitari zer egin zion bainekien eta oso haserretuta bainengoen. Bravok mesedez eskatu

zidan kaltetzeko, bestela Arzalluzi autobusarekin zerbait gertatuz gero, guri botako zigutela errua. Azkenean, kaltetua konpondu beharra izan nuen.

Josek, herrira iristean, zer-nolako egoera bizi izan zuen?

Aitari ez zioten utzi Epelde y Larrañaga lantegian akzioak zituen arren bertan lan egiten, nahiz eta eskatu zuen. Osaba Inaziori utzi zieten lan egiten, eta horregatik, aita Nafarroako txistorrarekin ibiltzen zen estraperloan, txorizo pikantea saltzen zuelarik.

Gertatutakoa barkatzerik ba al dago zure ustez?

Ez barkatu ere, beraiek ez zuten barkatzen eta beraz, nik zergatik barkatu. Ez zait ezer inporta, ez dut ezer jakin nahi. Hori ez da ahazten eta buruan oso ondo sartuta daukat egin ziguten guztia. Izugarrizko kaltea egin ziguten herrian.

Zer konta diezagukezu Juin Torrearen inguruan?

Juin-Torrean bertan erreketek eduki zituzten, eta ezer ez gertatzeko bertatik atera zituzten erreketek irailak 19an errepublikarrek. Esan zieten etxera joateko eta ez ateratzeko, baina 7 atera egin ziren kalera, eta Iturbe zen gure lehengusuetako bat ere haiekin zen, eta Iraetaraino joan ziren. Iraetan “Viva Cristo Rey!”-ka hasi ziren erreketek zirelakoan bidean topatu zituztenak, baina anarkistak ziren eta horren eraginez, fusilatu egin zituzten.

Baliaras fabrikarekin gogoratzen zara? Eta “Epelde y Larrañagarekin”?

Ez, ez naiz fabrikaren gogoratzen, ni jaiotzerako itxita egongo zen agian. Epelde y Larrañaga Intsaustiko zonaldean zegoen kokatuta.

8. Eranskina (Gure Pilotalekuko inkesta):

2017ko apirilaren 12an, Azkoitian

Parte hartzaileak: 24 herritar, 18-56 urte bitartekoak.

Parte hartzaileei egindako galderak:

1. Zuen iritziz, noiz eraiki zen Gurea Pilotalekua?

- a. XIX. mende bukaeran
- b. XX. mende hasieran

- c. XX. mende erdialdean
- d. XXI. mende hasieran

2. Pilotalekua nork eraiki zuen ba al dakizu?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Bai. Pilotalekuaren eraikitzailearen izena.

Emaitzak:


1. Zuen iritziz, noiz eraiki zen Gurea Pilotalekua?

- a. 8
- b. 14
- c. 2
- d. 0

2. Pilotalekua nork eraiki zuen ba al dakizu?

- a. 0
- b. 24
- c. 0

9. Eranskina:



9.Erans. "Echániz Hermanos" merkataritza-sozietatearen estatutuak.
Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia

Irudia: bertan Gurea Pilotalekua eraiki ahal izateko sortu zuten "Echániz Hermanos" merkataritza-sozietatearen estatutuak ageri zaizkigu. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.


10. Eranskina:



10. Eranskina. Milagros Etxaniz Iturberen elkarrizketa (Maxixatzen, 1996). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Maxixatzen.

Irudia: Milagros Etxaniz Iturberi, Juana Iturbe Arrizabalaga eta Jose Echániz Iturrioz-en alabari Gurea Pilotalekuaren 65.urteurrenean, 1996an eginiko elkarrizketa. Iturria: Maxixatzen Azkoitiako herri aldizkaria.


11. Eranskina:



11.Erans. Gipuzkoako Antzerkien Kontsultarako eta Inspektzorako Batzordea (1931). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Irudia: 1931ko abenduaren 5eko dokumentu bat aztertuz, hain zuzen, Gipuzkoako Antzerkien Kontsultarako eta Inspektzorako Batzordeak Jose Echániz Iturrioz bidalitako dokumentu baten bidez, 1931ko azaroaren 28an, frontoia irekitzeko baimena eman ziotela adierazten ikuskatu ahal izan dugu, nahiz eta, oraingo mezu honen bidez, inspektzioak zenbait berrikuntza egin behar dituela adierazten dion, inaugurazio ofiziala egin baino lehen. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

12. Eranskina:



12. Eranskina. Juana Iturberen eskutitza (1940). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Irudia: Juana Iturbe Arrizabalagaren eskutitza Ondarretako komandantzia militarra, bere senargaia Jose Echániz Iturrioz bertatik askatzeko eskatuz. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.


13. Eranskina:



13. Eranskina. Jose Echánizen absuluzioa (1942). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Irudia: Jose Echániz Iturriozek Ondarretako presondegitik irteten duen uneko dokumentua, 1942ko irailaren 30ekoa. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.


14. Eranskina:



14.Eransk. "Juana Iturbe Ultramarinos Finos" dendako dokumentua. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Irudia: “Juana Iurbe Ultramarinos Finos” dendako dokumentuetako bat. Bertan errepara genezakeenez, denda, Azkoitiko Kale Nagusia 32an kokatzen zen. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

15. Eranskina:



15.Eranskina. "Tabacalera S.A."-ra erreklamazioa (1977). Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

Irudia: Milagros Etxaniz Iturbek, Juana eta Joserren alabak, Diktadura Frankista amaitu ostean, tropak Azkoitiara sartu eta denda itxi zietenean erreklamatutako estankoa erreklamatz Tabacalera S.A.-ra bidalitako eskaera, 1977an. Iturria: Etxaniz-Iturbe familia.

16. Eranskina (trankribapena):

1937 EXPTES. SUMINISTROS EJÉRCITO (Hospital)

1. Dok.:

Ayuntamiento de Azcoitia

Año de 1937

Antecedentes sobre el Hospital militar de primera línea instalado en las Escuelas de esta villa.

2. Dok.

Antonio Sanz Orrio, capitán de Intendencia, Jefe administrativo de la primera Brigada Navarra.

- 1º 80 camas, para los heridos en el ejército y milicias. Alumbrado, estufa y alimentos.
- 2º Exista conformidad en su número (trabajadores), del Director del Establecimiento.
- 3º “El Ramo de Guerra” se compromete a abonar al Ayuntamiento, previa presentación en el Hospital Militar de San Sebastián de triplicada relación de estancias con la conformidad del Director del Establecimiento, las que se causen al precio máximo de cuatro pesetas cincuenta céntimos por soldado o individuo de milicias y doce pesetas por Jefe u Oficial.
- 4º 1 de marzo de 1937, apertura del hospital.

Azcoitia, 27 de febrero de 1937

Firman:

- Alcalde: José Luis Albizuri
- Capitán Jefe administratibo: Antonio Sanz Orrio
- Sello: Ayuntamiento de Azcoitia + Sexta División de Brigadas Navarras, Jefatura de Servicios Intendencia.

3. Dok.:

Inventario de Ropas e Utensilios del Hospital Militar de Azcoitia

- Misericordia: Vitrina de instrumental quirúrgico + 20 camas
- Loiola: 67 camas
- Junta Carlista de Guerra
- Maria Vicenta Larreta, Ayuntamiento de Azcoitia, el secretario, Felipe Morentin, parroco, señor Nafria ...
- Una vez cerrado el hospital, los materiales serán llevadas a la Santa Casa de la Misericordia.

Azcoitia 6 de Marzo de 1937

4. Dok.:

- Parque de Intendencia de Vitoria
- Lista de febrero de 1937:
- Azúcar pilón “para moros” 1,118 pts.
- Foie-gras 0,45pts → 250 gr.lata.
- (...)

5. Dok.:

- Dietas de los soldados (...).

6. Dok.:

- Vale para el Hospital Militar
- Vale para la adquisición de la Intendencia Militar de Zumárraga, con destino al Hospital Militar de sangre de esta villa de Azcoitia.

7. Dok.:

- Jabones, Lizariturry y Rezola S.A. Julian Orbeago y Eugenio Rezola (consejero-delegado de la fábrica).

18 de marzo de 1937

8. Dok.:

Julian Orbeago: 24 cajas jabón Lagarto, 1200kg. Recibido: 30 de marzo de 1937.

9. Dok.:

Fábricas de Cervezas “El Leon” Juan y Teodoro Kuz (San Sebastián, Antiguao)
-Cervezas de Exportación / Gaseosas-Hielo
-28 de marzo de 1937.
-Colonia Beristain de Azcoitia

10. Dok:

- Sesión ordinaria de 1938 mayo II. Suministros.

11. Dok.:

- Suministro: Parque de Intendencia de Vitoria.

12. Dok.:

“Parque de Intendencia de Vitoria” (Zumárraga)

- Abril de 1937:
“Cargo que formula este establecimiento contra Hospital Militar de Azcoitia.
2005 con %98 en deuda. 30 de abril de 1937-
- Verc-Fajal

13. Dok.:

- Mayo de 1937, traslado al Hospital Militar de Marquina.

14. Dok.:

- 2 de mayo de 1937, insistencia de traslado al Hospital Militar de Marquina.

15. Dok.:

- 5 de mayo de 1937, Alfonso Mosally, capitán médico militar: “dando en ello una prueba más del desinterés que ese pueblo de Azcoitia ha mostrado constantemente para los heridos de guerra”.

16. Dok.:

- Entre abril y mayo de 1937, el Ayuntamiento de Azcoitia se hará cargo del Hospital Militar de Floreaga.

17. Dok.:

- Rived y Choliz -Zaragoza-(1 de abril de 1937): deudas del Ayuntamiento de Azcoitia (...)

18. Dok.:

29 de abril de 1937: traslado del material al Hospital Militar de Marquina.

19. Dok.:

- 3 interinas → 4 pts. por día: limpieza quirófano y plancha
- 4 sanitarios → enfermero de Azcoitia 1,85 pts. por día; ayudante para la cocina 1,85 pts.; muchacha, no cobra.
- Requetés, 5 litros de vino por día
- Requeté interina, 1,75 pts.
- 2-3 enfermeras

20. Dok.:

- 20 de marzo: 60 pacientes
- 17 de marzo: 69 pacientes
- 27 de marzo: 60 pacientes
- 26-27 de marzo: 40-41 pacientes
- 4 de abril: 40 pacientes
- 10 de abril: 40 pacientes
- 17 de abril: 46 pacientes
- 22 de abril: 71 pacientes
- 23 de abril: 81 pacientes
- 24 de abril: 49 pacientes

21. Dok.:

- Resumen Histórico del Padecimiento, personal médico (...)

AYUNTAMIENTO DE AZCOITIA

17. Eranskina:

N.º 17. ERANSKINA	
Egoitza: 1937ko apirilaren 10ean	
Egoitza: 1937ko apirilaren 10ean	
1	Alfonso Muga
2	...
3	...
4	...
5	...
6	...
7	...
8	...
9	...
10	...
11	...
12	...
13	...
14	...
15	...
16	...
17	...
18	...
19	...
20	...
21	...
22	...
23	...
24	...
25	...
26	...
27	...
28	...
29	...
30	...
31	...
32	...
33	...
34	...
35	...
36	...
37	...
38	...
39	...
40	...
41	...
42	...
43	...
44	...
45	...
46	...
47	...
48	...
49	...
50	...
51	...
52	...
53	...
54	...
55	...
56	...
57	...
58	...
59	...
60	...
61	...
62	...
63	...
64	...
65	...
66	...
67	...
68	...
69	...
70	...
71	...
72	...
73	...
74	...
75	...
76	...
77	...
78	...
79	...
80	...
81	...
82	...
83	...
84	...
85	...
86	...
87	...
88	...
89	...
90	...
91	...
92	...
93	...
94	...
95	...
96	...
97	...
98	...
99	...
100	...

17. Eranskina. Floreagako ospitale-militarreko soldadu zerrenda. Egilea: Ione Muxika Zuloaga. Iturria: Azkoitiako Udal-Artxiboa

Irudia: 1937ko apirilean, Floreagako ospitale-militarrean (Azkoitia) egondako soldaduen zerrenda. Iturria: Azkoitiko Udal Artxiboa.